

Aurretik izena emoteko aukerea zabalik dauka AEK-k

13. orrialdea

Bizkaiko txapela jantzi dau Tubik lasto botaten

Arratzun jokatu zan Bizkaiko Txapelketea eta Jose Martin Bustinza "Tubi" dimoztarra gailendu zan 6,10 metroko markea eginda. Beñat Obieta, Eloy Salterain eta Jon Loiola izan ebazan aurkari. Garagarrilaren 23an, Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketea jokatu dau. **11. orrialdea**



Amaia Aldai pelotariak txapel bi lortu ditu bagilaren 8an eta 9an

10. orrialdea

Jaiak Arantzazu, Bedia, Dima eta Ubiden

Dana prest dago Bedia eta Ubideko sanjuanetarako, eta Arantzazu eta Dimako sanpedroetarako. Jentez beteko dira kaleak eta danek ondo pasetako moduko egitarauak prestatzen saiatu dira Jai Batzordeak. Gauetan kontzertuak eta erromeriak egongo dira eta egunez, txarangak, lehiaketa gastronomikoak, kuadrillen arteko jokoak, umeentzako puzgarriak, bazkari herrikoiak... Baina herri bakotxean gauza desbardinak be egongo dira: Bedian, antxinako auto eta motorren erakusketea; Ubiden, arbola basotik ekarri eta plazan ipini; Arantzazun, buruhandiak eta Diman sokamuturra, tar-tean. **5. 6. eta 7. orrialdeak**



Lemoako eta Zeanuriko alkate barriei alkarrizketak



Bagilaren 17an, Saioa Elejabarrietak (EH Bildu), Esther Iturriozeri (EAJ) pasauko deutso Lemoako aginte makilea. Zeanurin barriz, Eider Ajuriagerrak (EAJ) Nahia Urrutuari (EH Bildu). Lemoan eta Zeanurin ordutik aurrera alkate izango diran Iturrioz eta Urrutuagaz egon da BEGITU berbetan. **8. eta 9. orrialdeak**

ARRATIA

Hainbat auzotan jaiak ospatuko ditue sanjuan eta sanpedroetan

Dimako Oba auzoan, Igorreko San Juan auzoan eta Zeanuriko Altzuegan, barbarako, sanjuanak dira auzoko jaiak; Zeanuriko Undurragan sanpedroak. Gainera, beste leku askotan legez, Arratiako herrietan be suak biztuko dabez San Juan eguneko bezperan udako solstizioa ospatuteko. **6. orrialdea**



ZEBERIO

Zinegoak jaialdiko sei film labur ikusgai bagilaren 28an

LGTBI Harrotasunaren Nazinoarteko Egunean, bagilak 28, 20:00etan, Zinegoak Bilboko LGTBQ+ nazinoarteko zinema eta arte eszenikoen jaialdiko ZGHedapena saileko sei film labur ikusi ahal izango dira Zeberioko udaletxeko bigarren solairuan. *It's a Gray, Gray World, Perpetua felicidad, Girls and The Party, Ezohikoak, Son, Arnasa* eta *Irrits* dira filmak. **12. orrialdea**



IGORRE

Arratia Institutuak eta hango ikasleek hainbat sari jaso ditue

Urruzuno literatur lehiaketan ikastetxe mailako sarietan bigarren izan da Arratia Institutua eta bertako DBH 4.eko Enara Gallastegik lehenengo saria irabazi dau prosan. Aitatzeko be bada, DBH 3.eko poesia lehiaketan, laugarren eta seigarrena egin dabenak Arratia Institutuko ikasleak dirala.

Zientzia arloan be izan da sarritua Arratia Institutua. Batxilergo 1.eko ikasleek, "Mendikateak eraikiz" izeneko proiektua aurkeztu eben Elhuyar Zientzia Azokan eta estadu mailako zientzia azokan aurkezteko aukerea izango dabe saritzat. **5. orrialdea**

Literatura txokoa

31 IPUIN

Anton Txekhov, XIX. mendean bigarren erdialdeko idazle errusiarra berai. Bizi laburra baina idazlanetan oparoa, medikua lanbidez. Ipuingintzan gailurrera heldu zana osterantzeko literatur atalei ekin baeutsan be.

Bilduma honetan nabaria da ospea eskuratu eban egilearen iaiotasuna orduko gizartearen barriak azaleratu eta argitara ekarri eta, oro har, gizaki guztiok dogun kontraesan, hipokrisia eta gainerako "doeak".

Kontakizun hasieran, gehienetan, ia lehenengo lerroan, tituluan ez bada, protagonista/en ogibidea nabarmentzen dau haren gizataldea gogor astintzeko asmoagaz edo, funtzionarioak edo burgesia kideak endemas,

deskribapen nasai eta zarpailak jaurtinaz, hala nola, ikasle sasoietako adiskidetasuna tartean izan arren, titulu edo karguagazko larregizko errespetua (*Gizena eta argala*); gaur egun "politikoki zuzena" deritxagun hipokrisia eta zentsura bere burua liberalizatzen aldarrikatzen dauanarengan (*Liberal bakezalea*); kokotelodien nagikeria hiruzpalau bider andeari seme-alaben adina itaundu beharraz (*Kronologia bizia*). Ipuin honetan, gainera, egongelatik etxeoandarearen gelarainoko zinemagintzako *travelling*-a, modu itzelean erabilten dau ipuin hasieran, irakurlea girotu daiten.


(*Gaizkilea*) ipuinean oster, epaile eta baseritarrak auziaren barruko dialektikan bigarrenak

beren arlotetasunean, eskolatuari, aingirak nola, legeriaren eskuetatik ederto daki irristatzen, etorria eta xalotasuna era berean erabiliz.

Funtzionarioaren eroskeria (*Ziurtagiria*)... hainbat eta hainbat adibide luma zorrotz eta sarkorrez "humanoo" aiurria ederto narrututerrainoko guztiak agertu arazoz.

Ipuin labur-laburretan dago bildumearen corpusa batuta, gehienetan 5, 6, 7 orrialdekoak, 15-20ko banakaren bat tartean dala. Personaien deskribapen iradokorraz beterik: "... *Haren aurpegi erdi hordituan: larrutuko haut, alproja hori*" irakurri eitekean... (*Kondekorazioa*).

Gizarteak gizarte, gizakion jokamolde eta izakera ezetuteko bide arteza emoten deusku Txekhovek,



Anton Txekhov. Itzultzailea: Iker Sancho Insausti

31 ipuin

Elkar argitaletxea, 2022

292 orrialde

unibersala eta orokorra, mendeak joan mendeak etorri aldatu ez dana. Horra hor maisutasuna, laburrean arituz, hostotza eta zarraparra barik, genero motzaren ildoetatik iges egin barik. Itzulpen bikaina Iker Sancho Insaustiren eskutik.

Putin K.

Larrialdiak

Galdakaoko Ospitalea 94 400 70 00
SOS DEIAK 112

Guardiako farmaziak

09:00etatik 22:00etara

Bagilaren 12tik 18ra

Andrea Lavin Abadia. Lemoa. Atutxa Sailburua 1
Tel.: 94 631 30 18 eta 652 733 820

22:00etatik 09:00etara

Gutierrez. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 19tik 25era

Rodriguez Martinez. Igorre. Agirre Lehendakaria 27
Tel.: 94 673 61 09 eta 688 635 154

22:00etatik 09:00etara

Ruiz Golvano. Amorebieta-Etxano.

Bagilaren 26tik garagarriaren 2ra

Zamalloa. Areatza. Askatasun kalea 15
Tel.: 94 673 93 22 eta 609 402 908

22:00etatik 09:00etara

Goiria Montoya. Amorebieta-Etxano.
Zeberioako ez dau guardiarik egiten.

Urte osoan. 22:00etatik 09:00etara

Zoco Robles Miren Nekane. Urbi 15. Basauri.

Medikuak

Arantzazu: 94 600 74 63

Artea: 94 673 92 11

Areatza: 94 631 71 52

Bedia: 94 631 34 13

Dima: 94 680 19 74

Igorre: 94 600 74 63

Lemoa: 94 631 31 16

Ubide: 945 45 03 61

Zeanuri: 94 673 91 49

Zeberio: 94 648 01 85

Udaletxeak

Arantzazu: 94 631 56 89

Artea: 94 673 92 05

Areatza: 94 673 90 10

Bedia: 94 631 42 00

Dima: 94 631 57 25

Igorre: 94 631 53 84

Lemoa: 94 631 30 05

Ubide: 945 45 03 22

Zeanuri: 94 673 91 46

Zeberio: 94 648 10 79

Arratiako Udalen

Mankomunitatea 94 631 17 17 /

mankomunitatea.arratia@bizkaia.org

Gorbeialde Landa

Garapenerako Alkartea

94 631 55 25 / gorbeialde@gorbeialdea.com

Areatzako Parketxea 94 673 92 79

IKE 94 673 62 51 / kulturetxea@igorre.net

Euskotren 94 433 33 33 / euskotren.eus

Areatzako Notarioria 94 673 92 26

Errota Fundazioa

688 854 543 / info@erota.eus

Arratiako Musika Eskola

94 631 73 52 / www.arratiakomusikaeskola.eu

Bizkaibus 94 612 55 55

3917 linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Zeanuri

Bilbotik. Lanegun eta zapatuetan: 06:15etik

22:15era ordu. Jaiegunetan ordu

07:15etik 22:15era.

Zeanuritik. Lanegunetan: Lehenengo

05:00etan. Ordu erdiro: 05:15etik 06:45era.

Orduro: 06:45etik 21:45era. Azken zerbitzua

22:00etan. Zapatuetan: Lehenengo

05:00etan. Orduro: 05:45etik 21:45era.

Jaiegunetan: 07:45etik 21:45era ordu.

3911 Linea. Bilbo-Galdakoa-Ospitalea-Lemoa-Durango-Elorrio

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

22:00etara ordu. Zapatu eta domeketan

Durangoraino.

Elorriotik. Lanegunetan 06:45etik 20:45era

orduro.

Durangotik. Lanegunetan: 07:10etik

21:10era ordu. Zapatuetan: 06:30etik

21:30era ordu. Jaiegunetan: 07:30etik

21:30era ordu.

3912 Linea. Bilbo-Ospitalea-Lemoa-Durango-Ermua-Eibar

Bilbotik. Lanegunetan: 06:30etik 22:30era

orduro. Jaiegunetan: 07:30etik 22:30era

orduro.

Eibartik. Lanegunetan: 06:00etatik

21:00etara ordu. Zapatuetan: 06:20tik

21:20era ordu.

Jaiegunetan: 07:20tik 21:20era ordu.

3925 linea. Bilbo-Lemoa-Otxandio-Ubide

Bilbotik. Lanegun, zapatu eta jaiegunetan,

Otxandio: 06:45etik 20:45era ordu.

Ubidea: 06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Ubideetik. Lanegun eta zapatuetan:

06:45etik 20:45era bi ordu behin.

Jaiegunetan: 08:45etik 20:45era bi ordu

behin.

* 08:45ean, 14:45ean eta 18:45ean urteten

diran zerbitzuak Barazaren gelditzen dira.

Otxandiotik urtekerak. Lanegun eta

zapatuetan: 06:55etik 20:55era ordu.

Jaiegunetan: 08:55etik 20:55era ordu.

3927 linea. Bilbo-Lemoa-Zeanuri (autopistatik)

Bilbotik. Lanegunetan: 07:00etatik

21:00etara ordu. Zapatu eta jaiegunetan ez

dago zerbitzurik.

Zeanuritik. Lanegunetan: 07:00etan lehena,

eta 08:15etik 21:15era ordu. Zapatu eta

jaiegunetan ez dago zerbitzurik.

3928 linea. Artea-Zeberio-Ugao

Zeberiotik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:00, 08:20, 09:10*, 11:00;

11:45*, 14:10, 15:00, 16:10, 18:30*, 20:20.

*Basauriraino bakarrik.

Basauritik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 10:00, 12:45*, 19:20.

*Artearaino bakarrik.

Ugaotik Zeberiora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20, 08:40, 10:20, 11:20, 13:05,

14:30, 15:30, 16:30, 19:40, 20:40.

Arteatik Ugaora. Lanegun eta zapatuetan:

06:50, 08:00, 14:00, 16:00.

Ugaotik Artea. Lanegun eta zapatuetan:

13:05, 15:30, 20:40.

Igorretik Ugaora. Lanegun eta

zapatuetan: 07:55ean.

Ugaotik Igorrea. Lanegun eta

zapatuetan: 07:20ean.

Zeberiotik Arrigorriagara. Jaiegunetan:

08:10, 11:10, 14:10, 17:10, 20:10.

Arrigorriatik Zeberiora. Jaiegunetan:

10:20, 13:20, 16:20, 19:20.

La Union 94 427 11 11

Bilbo-Gasteiz

Lanegunetan: Ubidekoak 09:15ean urteten

dau eta Otxandiokoak 16:00etan. Zapatuetan:

Ubidekoak 09:00etan urteten dau Bilbotik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 10:00etan urteten

dau eta Otxandiokoak 18:30ean.

Gasteiz-Bilbo

Lanegunetan: Ubidekoak 09:00etan urteten

dau Gasteizetik eta Otxandiokoak 10:30ean.

Zapatuetan: Otxandiokoak 10:30ean urteten

dau Gasteizetik.

Jaiegunetan: Ubidekoak 16:30ean urteten dau

Gasteizetik.

Argitaratzailea: Zertu Kultur Elkartea. **Helbidea:** Herriko Plaza 24, 48142 Artea. **Tel.:** 94 673 90 13. **E-posta:** begitu@begitu.eus. **Webgunea:** www.begitu.eus. **Zuzendaria eta publizitate arduraduna:** Iñigo Iruarrizaga. **Tel.:** 649 979 115. **E-posta:** inigoirua@begitu.eus. **Erredakzino burua:** Beatriz Azpiri. **Tel.:** 649 979 112. **E-posta:** beazpiri@begitu.eus. **Erredakzinoaren arduraduna:** Asier Abrisketa eta Beatriz Azpiri. **Webgunearen arduraduna:** Asier Abrisketa. **Tel.:** 626 647 923. **E-posta:** asierabrisketa@begitu.eus. **Maketazinoa:** Beatriz Azpiri eta Iñigo Iruarrizaga. **Banaketea:** Garbikuzi enpresa (Dima, Ubide, Zeanuri eta Zeberio), Asier Abrisketa (Igorre), Nerea Beitia (Bedia eta Lemoa) eta Asier Jugo (Arantzazu, Areatza eta Artea). **Tiradea:** 7.300 ale. **Inprimategia:** Bidasoa inprimatzeko zentroa. **Facebook:** Begitu Aldizkaria. **Twitter:** @BegituEus **Instagram:** @begitu.eus



Aldizkariaren edukiaren eta diseinu grafikoaren egile-eskubideak Zertu Kultur Elkartearnak dira, baina partekatu daitezke *Creative Commons Aitortu Partekatu lizentziaren bitartez (CC-by-sa)*. Beraz, erreproduzidu, banatu, jente-aurrean komunikatu, eraldatu daitezke, beti be iturria aitatzu eta egiletza aitortuz, eta baldintza horreen pean partekatuzeko.



Ale kopurua 7.300 / Lege gordailua SS-512/02 / ISSN zenbakia 1579-5519

Babesleak:



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

ZEURE BERBEA

Lagun maiteok

2023ko Areatza Musik & Beer hau berezia izan da eta holan sentidu dogu antolakuntzatik be; giro ederra, natural eta hobetueztina egon da-ta, Areatzako kaleetan. Gure abentura honetan gure eskutik joan diran heritar, alkarte, enpresa eta erakundeen laguntza barik, sentipen honek bizitea ezinezkoa izango zan. Beraz, idea zoro bat errealidade bihurtzen lagundu deuskuzuen guztiei mila esker eta besarkada bero bana!

Mila esker erakunde publikoei gure idea bultzatzearen eta gure ondoan egotearen, gure finantziaketa bermatutearen eta gure proiektua egi bihurtzen lagundutearen.

Mila esker, hasikera batetik gure ondoan egon diran enpresa guztiei, eta batez be esfortzu itzela egiten daben inguruko enpresa txikiei, zuok barik ez gara ezer! Eta esker bereziak urtean baten, Hotel Musikala bihurtzen dogun Areatzako Bainuetxeari, gure musikariak rock izar moduan hartu eta zaindutearren!

Mila esker gure herri txiker honetara hurreratzen diran musika banda guztiei, mila esker gure herria mapan ipinten lagundutearen, mila esker gure gabeziak onartuten dozuezalako eta danok irribarre bategaz urteten dozuelako hemendik errepitiduteko gogoz. Eta musikea ez zan ezer izango argi, soinu eta instrumentu barik, eta horretan maisu handiak diranak, lagun egin doguz: Atomic eta Line Up! Biba zuek!

Eta zer esan gure bidailagun diran *Food Truck*, gastronomia eta

garagardaoei buruz. Hasikeratik bidelagun izan dogun Hernaniko Basqueland Brewing garagardaotegia aitatu behar dogu hemen eta zelan ez, zerbitzu itzela eskaintzen dauan Beerbao be bai! Kevin eta Ricardo, bikote parebakoa. Mila esker!

Baina honetan guztian parterik garrantzitsuena diranak ez doguz ahaztu behar: heritarrak. Batzuk, euren pazientziagaitik: komertzioak, gure ordutegi zoroak pazientziagaz aguantetan (lorontziak gora eta behera, parkatu Eroski eta Andikoa); alde zaharreko heritarrak, Areatza inbadiduten dogulako astegoien baten (kotxea ipini, kotxea kendu...); tabernariak (oin bokatak behar doguz, oin Ballantine's botila bat, pizzak, kafe gozoa...). Eta beste batzuk, barra egiten, musikoak koordinetan (aupa Josep!), agerleku eta gune desbardinak montetan (animo Quad Team!), egunean bertan generadoreak montetan eta beste mila gauza egiten lagundutearen, eta irribarre bategaz agertzen zarien guztiei eskertuteko ez daukagu indar eta energia nahikorik! Zuok zarie gure motorra!

Eta amaitzeko, Areatza Musik & Beer familia hau handitzen dabil urtero, eta honen errua zuok daukazue, Areatzara hurreratzen zarien guztiok daukazue, ezezagun izatetik familia eta lagun izatera pasau zarien guztiok daukazue (Sugar, Aspiazu, Rafa, Ana...), eta horren aurrean txapela kendu eta eskerrak emon baino ezin dogu egin. Datorren urtea desbardina izango da, baina gure konpromisoa daukazue ahalik eta ondoen egingo dogula, hartu dogun txute emozionala ederra izan dalako! Gero eta gitxiago falta da, 358 egun... Gora AMB!

**AREATZA MUSIK AND BREWING
MUSIKA ETA KULTURA ELKARTEA**

Zure eretxia agertu gura badozu, Zeure Berbea atala zabalik daukazu. Ez da komenidu 15 lerro baino gehiago idazterik. Izena, telefonoa eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezker, BEGITU eskubidea dauka horretarako. Gutunak hona bidali: begitu@begitu.eus helbidera.

Zirhika

ARTELATZ ETA TXARAKIN

Hitanoagaz hasteko aholkuak (XXVII). Kale berbakunea sustatu guran

LAGUN BIREN ARTEKO ALKARRIZKETEAK, NESKAK BIAK:

- Arrastion!!
- Halan ekarri!!
- Ba **etxakarzanat** onenak...
- Zer **dinona**?
- Ba espezialistatik **ñatona** eta sorbaldea operau behar **jonatela** esan **jostena**.
- Eztona** egia izango?
- Ba **badona** bai...
- Eta zer **dekona** euki.
- Ba neuk be **etxakinat** ondo! **Etxakinat** zer demonio baina zantiritu batetik operazino batera pasau **gozana** egun batetik bestera.
- Hau **dona** komeria!!

ERETXIA

Zerbitzu publikoen pribatizazioak ekarri leikena

Pribatizazioak gero eta eragin handiagoa dauka zerbitzu publikoetan. Izan be, oin arte zerbitzu publikoan ziran hainbat zeregin esleitzen jakiez enpresa pribaduei, eta azken honeei emoten jakiezan erraztasunak begi bistakoak dira. Oso agerikoak dira, esaterako, osasungintza publikoaren hondatzea, edota Donostiako berdegune baten Basque Culinary Centerren eraikin bat egiteko Mondragon Unibertsitate pribaduari lur publikoak mosu-truke emon izana. Baina ez dogu horren urrun joan beharrik. Inguru arakata, bestelako adibide asko topau daikeguz.

Bertara etorrita, aitzatekoa da aurten Arratiako Mankomunitateak hainbat "laguntza" eskaini dituala, danak be kudeatzen dauan diru publikoagaz. Horren artean nabarmentzekoa da kontratatu izana Arratia BHI Institutu publikoan lanbide-orientazio ekintzak eskaintzeko, baita nerabe eta umeentzako psikologo pribadu bat be.

Nerabeen egoera sozioemotionalak okerrera egin eta buruko gaixotasunak areagotu izanak psikologo baten premina dakar, zelan ez. Osakidetzak psikiatra eta psikologoei begira eskaintzen dituan zerbitzuak urriak dira, eta guraso askok psikologo pribaduetara jotzen dabe (ahalmen ekonomikoak aukerea emoten badeutse). Berritzeguneetan dagozan psikologoak be gitxi batzuk baino ez dira, eta bertako antolaketa barriak murrizketak ekarriko ditu. Beraz, argi dago arreta ez dala nahikoa.

Arratiako Mankomunitateak psikologo pribadu bat kontratatu izana eskertzeko dala pentsau daikegu, hortaz, errealistak izanda ezin dogulako ukatu bere laguntza.



ROBERTO SALAZAR MUÑOZ

Hezkuntza Zientzietan Doktorea

Baina kontu handiz ibili behar gara, horrek desbideratu ahal gaitualako. Izan be, gure nerabeen artean osasun arazoak badagoz, beharrezko baliabideak eskaini behar ditu bai osasun zerbitzu publikoak bai hezkuntza-sistema publikoak be. Hori da bidea, eta argi izan behar dogu norabidea.

Horrezaz gainera, esandako moduan, lanbide-orientazio lanak egiteko enpresa pribadua be kontratatu dau mankomunitateak, Berritzeguneko aholkulari bategaz alkarlanean. Garrantzitsua da azpimarratzea institutuko zuzendaritzeak zerbitzu hori onartu ebala orientazio arduradunagaz inongo komunikaziorik mantentidu barik eta, ondorioz, haren adostasun barik.

Nabarmentzekoa be enpresa pribadu horri esleitutako lanak institutuko langileak garan orientatzaile profesionalok eta tutoreek egiten doguzala urtero: ikasleentzako saioak, alkarrizketak, gurasoentzako berbaldiak...). Horrez gain, bestelako eragile eta ekintzak baliatzen doguz orientazio-prozesurako: EHUko irakasleen berbaldiak, alkarrizketak ikasle izandakoakaz, Lanbide Heziketa eskaintzen danen ikastetxeetara urtekerak...

Ulertezina da enpresa pribadu bateri bertoko profesionalok egiten doguzan zereginak emotea, modu ordezkatzailan gainera, eta ez osagarrian. Enpresa horri ordaintzeko xahutu dituan milaka euroak erabili eikezan mankomunitateak hezkuntza-komunitateak benetan asetu barik dituan beharrianei erantzuteko.

Zerbitzu publikoen pribatizazioa gero eta nabarmenagoa da, eta azaldu dodan moduan, gurean be joera hori hartu dauanik badago. Bada garaia, hortaz, konzientziak astindu eta pribatizazioen bitartez personeren arteko desbardintasun sozialak handitu eta aukera bardintasuna ukatuko dituan mundu baterantz garozala jaubetzeko. Bada garaia beste norabide bat hartzeako, pausu pausu baina etenbarik, egunerokoari eta gauza txikiei erreparatuz: *Think globally, act locally*.



LUMATUTEN



ILIA MITXELENA

Agurraren balioa

Begietara begiratu, burua altxau, irribarre gozoa, eskua astindu, begi bat zarratu, berba labur eta maitakorra... Aurrean daukagunari, bizilagunari, lankideari, langileari, ikaskideari... bertan dagoala dakigula, inporta jakula eta ondo etorria dala esaten deuto gure agurrak. Inporta jakula bai, eta horrek ez dau esan gura lagunak izan behar garanik. Horregaz hor gagozala, bata eta bestea, espazio eta momentu bat partekatzen, segundo bat bada be... Hor gagozala bata besteagaz esaten deutsagu alkarreri.

Bizitzan oso momentu gogorak dagoz, eta sistema baten parte sentiduteak, momentu baten bada be, persona baten egoera aldatu leike. Besarkaden beharren gainean berba asko egiten da, baina agurren beharra ezinbestekoa dala uste dot lekuaren lekuko izateko.

Nondik eta nora doa baten bateri agurrik ez egitea? Zer esaten

deutsagu horregaz? Haserrea edo mespretxua adierazoteko iruditzen jata. Oso beharrezkoa izaten da batzuetan, persona batek egindakoari oneretxirik ez emoteko (benetan larriak diran gaiakaz). Eta agurtzen ez doguzan beste horreek guztiak, errazoi barik, gure mespretxua merezidu dabela uste dozu?

Batzuek sistema zehatz baten barruan erlazioetako modu bat dala dinoe, ez dala ezer personala. Persona batzuk agurtu eta beste batzuk ez egiten dogunean, guztiz personala dala uste dot nik.

Barne hausnarketarako balioko jakulakoan... zaindu alboan daukazu hori! Agurtu alboan daukazu hori!

Agur.

ZERTZEAN



MAITE BERNAOLA

Akorduan III

Amama Maurizia sueteko leiho ondoan egoten zan arrastietan, siestea egin ostean, beste beharlekurik ez eukanean. *Begire nago begire aurreko kamiol barrire...* kantuaren antzera.

Garai horretan etxeetako atak zabalik egoten ziran, edonorentzat; ez ziran giltzez zarratuten. Ordukoa da pasadizo hau.

Lantzean behin bisitaren bat eukiten eban. Aldi batean, egun batean bai, eta hurrengoan be bai.

Etorten zan lagun hori atsegina eta sano kultoa zan, baina berba egiteko arazoak eukazan, gaixotasun baten ondorioz. Amamari, barriz, urteakaz gorriera egin jakon.

Pentsau ba zelango alkarizketak eukiko ebezan, erdiak alkarreri aitu ezinda.

Egun batean urlia etxerantz urreratuten egoala ikusi eta, zer pentsetan dozu otu jakola?

-Gaur ez dot mamaleana egingo, eta etxera sartu orduko eskusauan sartu zan, barrutik atea itxita.

Denporagarrenean pausotsa entzun eban.

-Gaur, ez! Gaur ez daukat tenorerik tinubako alkarizketea eukiteko.

Lagunak kuartu bateko apalategitik liburu bat hartuta, alde egin eban. Zein liburu hartuta? *Refranes y sentencias en Vasceunce*.

Tarte hau zeuretzako be dago zabalik, holango sormen-lanak BEGITUN argitaratu gura izan ezker, eskatu egiguzuz argitaratzeko baldintzak begitu@topagunea.com helbidean.

BEGI TXINDORRA

Bagilaren 1ean, Herriko Bentak konbidautu, Anari egon zan Artean.

Eta beragaz batera, balea abisalak, zaldi zuriak trostan, arrainak, oreinak, zebrak eta koiote bat.

Gari eta goroldiozko paisaje poetiko eta politikoetatik eroan ginduzan; paisaje eder zein kapitalismoak eta gizakiaren kintenkeriek zauritutakoetatik. Bidean, gizarte maila bajukoek katea trofikoan sartutako antidepressiboek eraginda, jantzan ikusi genduzan arrain saldoak; igesi doan migratzaile baten bildurra sentidu genduan, laborariakaz batera izerdia bota genduan, eta andra biren arteko intimidadearen edertasunak, tximista baten moduan jo eta zeharkatu ginduzan.

Dana, arrasti-iluntze baten, herri txiki bateko plazan.



Gorosti
LORAZAINTZA
Lorategien Diseinu eta Gauzatzea
Ureztaketa instalazioa
Mantenua eta Inausketa
Bidosola Industrialdea E2 Pab. 48.142 Artea
Tel: 94 673 96 34 Faxa: 94 673 96 88
gorosti@gorostisl.com

BEER & EDARIAK
Guillermo 659 48 28 39
Fernando 699 29 67 17
Eduardo 647 72 96 24
Arkaitz 677 46 40 91
Golder 666 58 20 06
Pozuetz poligonoa, 10 LEMOA • beeredariak@gmail.com

agoa
hagin klinikak
Ortodontzia
Implanteak
Estetika
Marina Urigoitia Aldekoa
Odontologia
Bidebarri 1. behea
48140 Igome-Bizkaia
T. 94 631 50 39
Ikasgata Zerbitzu 101
R.P.S. 21/06

BEDIA

Beietz taldearen soinu zeltikoak eta Sua taldearen pop-rocka izango dira jaietako kontzertu gauean



Eguenean, hilak 22, 20:00etan, botako dabe jaien hasikerako txupina, baina jai giroa lehenago hasiko da Bedian. Izan be, txupina bota aurretik, umeentzako puzgarriak egongo dira eta aurreko domekan, XXI. Eskulangintza eta Elikagaien Azokea.

Erredakzioa

Sanjuanetan bestela ezin dan izan legez, jaietako momenturik bereziena, San Juan bezperako gauerdiko sua izango izango. Ostean erromeria egongo da Garilak 26 taldeagaz. Kontzertuei jagokie-nean, zapatuan, Beietz eta Sua taldeak egongo dira eta domeka arrastian, Puro Relajo. Eta jaietako atzen egunean, urteroko antxinako autoen eta motorren erakusketea eta *slaloma* egongo dira.

Bagilak 18, domeka

11:00etatik 14:30era, XXI. Eskulangintza eta Elikagaien Azokea plazan.

Bagilak 22, eguena

12:00etatik 14:00etara, umeentzako puzgarriak.
17:00etatik 19:30era, umeentzako puzgarriak eta bits jai.
20:00etan, jaien hasikerako txupinazoa, tritikixegaz alaituta. Ostean, sardinak.
21:00etan, Jauziri Bediako jantza taldearen erakustaldia.

Bagilak 23, barikua

19:00etan, Tortilla Lehiaketarako izen-emotea. (Osagaiak: patatak,

arrautzak, orioa eta gatza).
20:30etan, tortillen aurkezpena.
21:30etan, herri afaria.
24:00etan, San Juan sua.
00:30etan, erromeria Garilak 26 taldeagaz.

Bagilak 24, zapatua

11:00etan, meza nagusia.
12:00etan, Paella Lehiaketarako izen-emotea.
14:00etan, paellak aurkeztu.
17:00etan, Batzokiak antolatutako Mus Txapelketea, bazkalosteko bingoa eta umeentzako tailerrak.
18:00etan, XXXV. Briska Txapelketea. Bikotekide bat behintzat Bediako izan behar da. Izen-emotea 6 euro bikoteko.
22:00etan, kontzertuak: Beietz, Sua eta Oihan Vega.

Bagilak 25, domeka

12:00etan, VII. Antxinako autoen eta motorren erakusketea eta pintxo-potea txosnetan.
15:00etan, Club Automovilístico Bizkaiak antolatuta, IV. Bediako Slalom-a San Lorenzo poligonoan.
19:00etan, Puro Relajo taldearen kontzertua.
21:00etan, txokolatea eta jaien amaierako txupina.

DIMA

Willis Drummond taldeak animauko dau sanpedroetako zapatu gaua

Bagilaren 29tik garagarrilaren 2ra ospatuko ditue sanpedroak Diman. Edadekoei omenaldia, umeentzako jolasak, erromeriak, sokamuturra eta bertso-saioa dira antolatu dabezan jarduera batzuk.

Erredakzioa

Eguen gauean, Andoni Ollokiegik eskainiko dau kontzertua; barikuan Arratians taldeak eta zapatuan Galazota eta Willis Drummond-ek. Arratians taldekoak legez, 2021ean sortutako Galazota punk-rock taldeko kide gehienak be arratiarrak dira. Domeka arrastian, Benetan Zoro taldeak, Sorotan Beleren doinu mitikoak ekarriko dauz Dimara.

Jaiak kuadrillan ospatzea langorik ez dagoalakoan, kuadrillak lehiatuko dira eguen eta zapatuan, kuadrillen arteko jokoetan. Sariak domekan bananduko dira.

Eskaintza gastronomikoa, herri afariak, Tortilla Txapelketeak, Andraizearen taloek eta Paella Txapelketeak osotuko dabe.

Bagilak 29, eguena

14:30etan, 85 urtekoei omenaldia.



Ostean, jubiladuentzako bazkaria.
18:00etan, kuadrillen arteko jokoak.
19:00etan, txupina.
19:30etan, baflepotea.
21:30etan, herri afaria. Txartelak tabernetan salgai.
22:30etan, Andoni Ollokiegiren kontzertua.
24:00etan, erromeria Muxutruk taldeagaz.
03:00etan, dj USB.

Bagilak 30, barikua

12:00etan, umeentzako jolasak.
12:30etan, Lutxue anaiak.
16:30etan, Tute Txapelketea Aramotz tabernan.
17:00etan, umeentzako puzgarriak eta bitsa.
19:00etan, Dimako Plazako Eskupelota Txapelketea.
21:30etan, Korrontzi eta Gazte bari Dimako Dantza Taldea.
23:00etan, playback-ak.
00:30etan, Arratians-en kontzertua.
02:00etan, dj Mikerinos.

Garagarrilak 1, zapatua

12:00etan, Motx pailazoa eta umeentzako jolasak.
12:30etan, Txipli-txapla otxotea.
13:00etan, herri-kirolak eta kuadrillen arteko jokoak.

13:45ean, Lutxue anaiak.
14:00etan, Tortilla Txapelketea.
17:00etan, Mus Txapelketea.
18:00etan, txarangajaiak eta kuadrillen arteko jokoak.
19:00etan, taloak Andraizearen eskutik.
22:30etan, Galazota taldearen kontzertua.
23:45ean, errifetako sari banaketea.
24:00etan, euskal errepresaliduen giza eskubideen aldeko ekitaldia plazan.
00:30etan, Willis Drummond taldearen kontzertua
02:00etan, Beranduegi taldea.
02:30etan eta 05:00etan, Arratiako herrietara bueltetako autobusa.

Garagarrilak 2, domeka

08:00etan, sokamuturrea.
12:00etan, umeentzako jolasak.
12:30etan, kalejirea albokariakaz.
13:00etan, herriko umeak jantzan.
15:00etan, Paella Txapelketea.
16:00etan, Briska Txapelketea Aramotz tabernan.
18:00etan, bertso-saioa. Bertsolariak: Agin Laburu eta Beñat Ugartetxea.
19:00etan, kuadrillen arteko jokoen sari banaketea.
19:30etan, kontzertua: Benetan Zoro, Sorotan Bele tributo taldea.

IGORRE

Arratia Institutuko zientzia proiektu bat saritu dabe Elhuyar Zientzia Azokan

Erredakzioa

Batxilergo lehenengo mailako ikasleek aurten egindako STEAM proiektua, "Mendikateak eraikiz" izenekoa, Elhuyar Zientzia Azokan aurkeztu eben eta proiektua saritua izan zan. Horri esker estatu mailako Ciencia en Acción azokan parte hartu ahal izango dabe datorren ikasturtean. Bagilaren 4an izan zan sari banaketea Bilboko Areatzan.

Arratia BHIk urteak daroaz STEAM proiektuak egiten. Atzen urte bietan batxilergo 1. mailan egin dan plaka tektoniko eta arroken deformazioa azaltzeko maketa bat izan da saria jaso dauana. "Aurten 85 ikasle hartu dabe parte, taldeka, ikasgai des-

bardinak nahastuz, maketak egiten. Atzenean, bost ikasle joan dira ordezkari Elhuyar Zientzia Azokara proiektua azalduten" azaldu deusie BEGITURI Institututik. Bihotz Lekuonak, June Arriagak, Julene Goioagak, Julene Gomezek eta June Olangak emon ebezan azalpenak eta saria lortu eben. Holan, urri bigarrean, Bartzelonan, estatu mailako Ciencia en Accion azokan parte hartu ahalko dabe. Proiektuak ikusgai dagoz Institutuaren webgunean.

Aurtengo Elhuyar Zientzia Azokak 3 egun iraun dauz, bagilaren 2tik 4ra, eta Bilboko Areatzan egin da. Bertan 200 proiektutik gora egon dira ikusgai eta 60 ikastetxetako ia 700 gaztek hartu dabe parte. Euskal Herriko ikaste-

txetako gazteez gainera, Espainiako eta nazioarteko azoketako saridunak be izan ziran bertan: 7 talde etorri ziran.

Urruzuno sariak

Urruzuno literatur lehiaketan be hainbat sari jaso ditu Arratia Institutuak. Bertako Enara Gallastegi Barrenetxeak, DBH 4.eko eskolarteko finala jokatu eta lehenengo saria prosan irabazi eban.

Arratia BHI, ikastetxe mailako sarietan bigarren izan zan. Izan be, Enara Gallastegik irabazteaz gainera, sano ondo geratu ziran June Etxezarraga Yurrebaso, DBH 3.ekoa poesia lehiaketan, laugarren, eta Andere Bouza Bengoetxeak, kategoria berean, seigarren eginda.

ARRATIA

Egindakoa baliodun egiteko eta aurrera begirakoa adostuteko batzarra egingo dabe Ilgoran Jabekuntza Eskolako eragileek



kolaborazio handia behar da herrigintzatik. Zentzu horretan, sorrerako dokumentu horrek oso ondo zehaztuta daukaz, nork egin beharko leuken zer, zelan adostu, eta abar. Eta gai pilo dago. Lehenengotik horri balioa emon eta errekonozidutea" litzateke batzarren egitekoa.

Behin abiapuntua balioztuta eta momentuko Ilgoraneko errealidadean oinarrituta, "ahal dan neurrian, berrikuspen bat egin" eta aurrera begirako proposamenak adostutea da helburua. Jabekuntza eskolako "ilgorak eta ilbeherak" be komentauko dira batzarrean.

Erredakzioa

AUMko Bardintasun Teknikariak egin dau deialdia, bagilaren 22an, Diman, batzarra egiteko. Aurretik, datorren ikasturterako proposamenak bialtzera animau gura dau jentea.

Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako sorreran, lan handia egin zala nabarmendu dau Amagoia Villanueva AUMko Bardintasun Teknikariak. Dokumentazio handia eta zehatza dagoa dino. "Lehenengoa da hori dana balioztutea, egin dan lan hori, lan eukitsu eta eragingarria dalako. Herri txikietan, batzuetan udalak berak ez dauka egiturarik, baina espazioak bai, eta orduan,

Aurrera begira

Batzararen aurretik, jentek bere proposamenak bialdu ahal ditu eta jasotako proposamen bideragarriak eroango dira batzarrean datorren ikasturteko egitarauan sartzeako. Udalen aldetiko mugak eta ekarpenak be jakitera emongo ditu dino Villanuevak, danon interesak batu ahal izateko.

Datorren urterako, lan-ildo bat emon eta eskoleari funtzionamentu "errealago eta errazagoa" emoten saiatuko da teknikaria. Esate baterako, izen-emote moduak ez dira oso efektiboak eta buelta bat emon behar jakiera horreei pentsetan dau Bardintasun Teknikariak.

ZEBERIO

Austarri jaia antolatu dau Zeberioko kultur alkarteak

Erredakzioa

Austarri Kultur Elkartek asanblada orokorra egin beharra eukala aprobezauz, bagilaren 16an, jantzak, karibearrak zein euskal plaza-jantzak, eta txistorra jana egongo dira Zeberioko plazan.

Alkartekoek asanblada orokorra egingo dabe 18:00etan. Bertan,

urteko ekintzen informazioa eta informazio ekonomikoa emongo jakie bazkideei. Ostean, herriko jente guztiagaz konpartiduko dabe jai giroa, 19:15ean, egingo dan jantza karibear koreografiagaz eta 19:30ean, jantza-plazeagaz. Ostean, 20:00etan, txistorra egongo da hurreratzan diranentzat eta musikeak animauko dau iluntzea.



IGORRE

Jaietako azken txanpea

Erredakzioa

Bagilaren 18an amaituko dira aurten Igorreko jaiak, baina ordua arte badago zer gozatu. Bariku gauean, hilak 16, Arene 6, J Martina eta Altxa Porru taldeek eskainiko dabez kontzertuak eta zapatuan, Mumia, Kilimak eta dj Jotatxok. Domekan Gauargi erromeria taldeak alaituko dau arrastia.

Gartzen Martinez Sagarna igorreztarren, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* argazki erakusketeagaz lotuta, herri-kirol erakustaldia egongo da zapatuan, Lasarte parkean. Bertan, Jose Martin Bustinza "Tubi"k eta Jon Loiolak Iparraldeko jokoan erakustaldia egingo dabe; azkora erakustaldia, Uxue Ansozregik eta Oihana Fernandez de Barrenek eta harrijasoten, Mikel Lopetegik "Urra"k jardungo dau. Hizlaria, Ibon Iza izango da.

Bagilak 16, barikua

11:00etan, eskolako triatloia.
17:00etan, Saharais en Arratia alkarteak egindako jakien dastakea, txosnagune ondoko landan.
17:00etan, Patata-tortilla Txapelketea, txosnagune ondoko landan eta trikitilariak, Etxebarria aita-semeak.
19:30ean, tortillen aurkezpena.
22:30ean, kontzertuak. Arene 6, J Martina eta Altxa Porru.

Bagilak 17, zapatua

09:00etatik 14:00etara, Andrazko Alebinen Futbol Txapelketea, Urbieta zelaian.
14:00etan, herri bazkaria, eskoletako aterpean.
16:00etan, Bizkaiko Rugby Txapelketea, txosna ondoko errugbi zelaian.
17:30ean, rally umoristikoa, eskoletan hasita.
19:00etan, herri-kirolen emonaldia, Lasarte parkean, bagilak 19arte, Igorreko Kultur Etxeko Erakusketa gelan, Gartzen Martinez Sagarna igorreztarren, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* argazki erakusketeari lotuta.

22:00etan, kontzertuak: Mumia, Kilimak, dj Jotatxo.

Bagilak 18, domekea

10:00etatik 14:00etara, puzgarriak eta jokoak kiroldegian, Gurutze Gorraren eskutik.
14:30ean, jubiladuen bazkaria, eskoletako aterpean.
18:30ean, Gauargi taldeagaz erromeria AMEren eskutik, Lasarte parkean.
19:00etan, jubiladuen karta txapelketetako sari banaketea, Lasarte parkean. Bitartean, kuadrillen arteko sari banaketea *online*. Amaituteko, 19:30ean txokolatea AMEren eskutik, Lasarte parkean.

ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Aurten be oinez joango dira Urkiolara arratiarrak

Erredakzioa

San Antonio egunaren osteko zapatuan izaten da arratiarren errokatiba eguna. Aurten bagilaren 17an izango da, "Bakegile izan gaitezen" lemapean.

Urkiolara oinez joateko ohitureari eusten deusie batzuek eta aurten be, bidea alkarregaz egin ahal izango dabe oinez doazenek. Igorre eta Dimakoek 07:00etan ekingo deusie biderei eta Zeanurikoek

07:30ean. 11:00etan batuko dira danak Urkiolako santutegian.

Autobusak be egongo dira Urkiolako santutegira joateko. Aurten be parrokiek ipiniko dabe zerbitzu hori. Autobusen ordu-tegien informazioa parroketan emongo da.

Beste nobedade bat izango da, alde batetik, Asisko Frantziskoren otoitz baten zatia eta bestetik santutegiaren irudia daukan txartel bat bananduko jakiera erromesei.

ARRATIA

San Juan suak biztuko ditue herri eta auzoetan

Erredakzioa

Sanjuanak, herriko jaiak dira Beldian eta Ubiden, baita hainbat auzotan be. Dimako Oban, Igorreko San Juan auzoan eta Zeanuriko Alzuagan, berbarako. Gainera, beste leku askotan legez, Arratiako herrietan be suak biztuko dabez San Juan eguneko bezperan udako solstizioa ospatuteko. Musikea eta jana be ez dira faltauko suaren inguruan iluntze eta gau horretan.

Holan, Arantzazun berbarako, egurra batzeako alkartuko dira herrikoak, 18:00etan eta 20:30ean sardinak eta saiheski errea jan eta 21:30ean biztuko dabe sua. Areatzan, 19:00etan, Malas Companias Zirko Taldearen *Zirkus* ikuskizuna plazan eta 20:00etan sardina jana egongo dira Zubizaran. Ostean sua iziotuko dabe.

Artean, bitan ospatuko dabe udako solstizioa. Solstizio egunean, hilak 21, Kokomarroak taldekoek deituta, 20:00etan Santamañen eta San Juan bezperan Udalak deituta, 20:00etan, sua biztu eta sardina jana egingo dabe barriro Santamañen.

Lemoan, 19:30ean, Tallerretan hasiko dira jaiak ospatzen. Umeentzako ekintzak, janari eta edari salmentea eta Arbasoak taldeagaz musikea zuzenean egongo da, eta ostean, sua biztuko dabe.

San Juan auzoko jaiak (Igorre) Bagilak 23, barikua

20:00etan, jai hasikerako txupina; 300. urteurrena dala-ta kamisetak salduko dira. Ostean trikitilariak.
20:30ean, sardina jana.
22:00etan, San Juan sua.
22:30ean, Kittu taldeagaz erromeria.

Bagilak 24, zapatua

12:00etan, mezea. Ermitaren

300. urteurrena. Ostean trikitilariak.

Alzuaga auzoko jaiak (Zeanuri) Bagilak 23, barikua

15:00etan, jai hasikerako txupina.
21:00etan, sardinak, txarri giharra eta txokolatea. Sua eta trikitixea.

Bagilak 24, zapatua

12:00etan, jantzariak.
13:00etan, mezea. Ostean barauskarria eta errifea.
19:00etan, Bola Txapelketea.
21:00etan, auzo afaria.

Undurraga auzoko jaiak (Zeanuri) Bagilak 29, eguena San Pedro Eguna

08:00etan, kalejireta auzoan.
11:30ean, mezea. Ondoren barauskarria txistulariek girotuta.

Garagarrilak 1, zapatua

08:00etan, kalejireta auzoan.
13:00etan, poteoa.
14:00etan, auzo bazkaria.
17:30ean, erromeria Etxebarria aita-seme trikitilariakaz. Ondoren igel jaurtiketea.
20:00etan, txitxi-burduntzia.

Garagarrilak 2, domekea

11:30ean, Tortilla Txapelketea.
13:30ean, poteoa.
17:00etan, puzgarri eta jolasak.
18:00etan, 5. Bola Txapelketea.
20:00etan, zozketea.

Jaien amaiera txokolateagaz.



ARRATIA, UBIDE, ZEBERIO

Bagilaren 17an gauzatuko dira udal gobernu barriak

Maiatzaren 28ko udal hauteskundeek udal gobernuak aldatzea ekarri dabe. Hilaren 17an, udalen osaketa barria gauzatuko da eta alkateek aginte makilea hartuko dabe.

Erredakzioa

Gure eremuan, zazpi alkate barri dagoz: Areatzan, Peru Perez de Anuzita (EH Bildu); Diman, Jose Mari Atutxa (EH Bildu); Igorren, Olatz Urkiza (EAJ-PNV); Lemoan, Esther Iturrioz (EAJ-PNV); Ubiden, Zigor Iturrioz (UHK); Zeanurin, Nahia Urrutxua (EH Bildu) eta Zeberion Ekain Goti (EH Bildu). Aurreko legegaldiko Arantzazuko alkatea Asier Aburtok (EH Bildu), Arteakoak, Alberto Intxaurragak (EAJ-PNV) eta Bediakoak, Aitor Sorriketak (EAJ-PNV) barriz, jarraituko dabe alkate izaten.

Ubideko Herri Kandidatureak jarleku guztiak lortu dauz eta oposizio barik aginduko dau datozan lau urteotan. Gure eremuko beste herrietan, EAJ-PNV edo EH Bildu ez dan beste alderdiek ez dabe zinegotzirik lortu eta bata agintean eta bestea oposizioan egongo dira. EAJ-PNVk, Artean, Bedian, Igorren eta Lemoan irabazi dau eta EH Bilduk Arantzazun, Areatzan, Diman, Zeanurin eta Zeberion.

Zinegotziak

EH Bilduk lau zinegotzi ditu Arantzazun: Asier Aburto, Ruben Montero, Beroñe Bilbao eta Miguel Delgado; eta EAJ-PNVk, hiru: Txus Dacosta, Lupe Molina eta Asier Perez.

Areatzan, EH Bilduko zinegotziak Peru Perez de Anuzita, Inma Valiente, Zigor Folla, Miren Madañaga eta Iñigo Iruarrizaga dira eta EAJ-PNVkoak Josu Basozabal, Jose Angel Atutxa, Jorge Trueba eta Argiska Basterra.

Artean, lau zinegotzi izango ditu EAJ-PNVk: Alberto Intxaurragak, Ainare Sanchez; Gorka Beitia eta Jose Inazio Ortuzar; eta hiru EH Bilduk: Izaskun Betzuen, Pili Alvarez eta Ainhoa Bernaola.

Bedian, EAJ-PNVk sei zinegotzi lortu ditu: Aitor Sorriketa, Miren Igone Etxebarria, Jose Manuel Sanchez, Meritxell Lejarzaburu, Unax Ispizua eta Maialen Larruskain; eta

EH Bilduk, hiru: Alberto Sanchez, Jose Luis Intxausti eta Maddi Arrarte.

Dimako EH Bilduko bost zinegotziak honeexek dira: Jose Maria Atutxa, Maider Kortazar, Borja Ruiz, Maria Jose Barrenexea eta Haizea Ziarrusta, eta EAJ-PNVko laurak, Josu Gorospe, Iurdana Acasuso, Beñat Salvador eta Lore Bilbao.

Igorren EAJ-PNVk sei zinegotzi izango ditu datozan urteotan: Olatz Urkiza, Koldo Atutxa, Ainara Uribe, Ainara Ipiñazar, Erik Esparta eta Aitor Etxebarria; eta EH Bilduk, bost: Illart Gumuzio, Ainara Castillo, Asier Bustinza, Irati Muñecas eta Ibon Ozerin.

Lemoan, zazpi zinegotzi lortu ditu EAJk maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan: Esther Iturrioz, Iñigo Zuloaga, Oñeka Zaballa, Iñaki Barrenexea, Urko Garamendi, Raquel Ortega eta Zuriñe Etxebarria; EH Bilduk, lau: Eukeni Bikarregi, Marian Garai, Aritz Undurraga eta Iker Azkune.

Ubideko Herri Kandidaturako bost zinegotziak, Zigor Iturrioz, Maider Almandoz, Aritz Azcorbebeitia, Irati Urien eta Oscar Martinez dira.

Zeanurin, EH Bilduk bost zinegotzi lortu ditu: Nahia Urrutxua, Arkaitz Estiballes, Maider Gandarias, Edurne Landajo eta Jokin Larrakoetxea, eta EAJ-PNVk, lau: Eider Ajuriagerra, Mikel Ibarra, Jaime Alonso eta Gurutze Etxebarria.

Zeberioko EH Bilduko bost zinegotziak, Ekain Goti, Itziar Aranguen, Ibai Perez, Amaia Bernaola eta Martin Urieta dira eta EAJ-PNVkoak, Karlos Idirin, Jon Etxebarria, Natalia Martinez eta Beñat Iriondo.

Batzar Nagusietako batzarkideak

Maiatzaren 28ko hauteskundeon ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusietako 51 jazarlekuetatik, 23, EAJk lortu ditu; EH Bilduk 15; PSE-EEK, 8; PPK, 3 eta Elkarrekin Podemosek 2. Batzarkideen artean, badago arratiarrik; Lemoako Esther Iturrioz (EAJ-PNV) eta Arteako Gorka Beitia (EAJ-PNV) ditue jarlekuak Bizkaiko Batzar Nagusietan eta.



Txupina eta buruhandiak Arantzazuko jaiei hasikerea emoteko

Arantzazuko jaietako txupina barikuan, hilak 30, botako badabe be, bezperarako, San Pedro egunerako, be prestatu dabez hainbat jarduera herrian, jai giro betean ekiteko astegoieneri.

Erredakzioa

Bariku gauean rock kontzertuak egongo dira. Berandu baino lehen eta Kontralde Arratiako taldeek eta Madrilako Aizu!, Kortaturen bersinoak egiten dituan taldeak, joko dabe. Gau horretan, 03:30ean egongo da Arratiako herrietara bueltetako autobusa.

Lau egunetako jai egitaraua da, bagilaren 29an hasi eta garagarriaren 2ra arte, eta egun horreetan, musika, txapelketak, playback-a, jana eta umeentzako puzgarriak egongo dira, besteak beste. Domekan, pelota partidu profesionala egongo da Ondo kostata pelotalekuan. Han, Amaia Aldai eta Enara Mendizabal, Olatz Arri-

zabalaga eta Enara Gaminderen kontra neurtuko dira.

Bagilak 29, eguea

13:00etan, mezea.
14:30ean, herri kopaua. Izen-emotea udaletxean hilaren 27ra arte.
18:00etan, Arratiako Musika Eskolareen kontzertua plazan.
19:30ean, pintxopotea Herriko Tabernan.

Bagilak 30, barikua

19:00etan, txupinazoa eta pregoia.
19:15ean, buruhandiak.
19:30ean, plaza jantzak eta Larrain jantzea.
20:00etan, Eingogaz kalejirea.
22:30ean, rock kontzertuak: Berandu baino lehen, Kontralde eta

Aizu! Kortatu taldearen bersinoak.
02:30ean, DJ Pendraif eta Uesebe.
03:30ean, Arratiako herrietara bueltetako autobusa.

Garagarriak 1, zapatua

10:00etan, paelletarako mahaien banaketea.
11:00etan, Futbolin Txapelketea, Herriko Tabernan.
13:00etan, Txubelazo Txapelketea.
14:00etan, paella eta tortillen aurkezpena.
17:00etan, txapel jaurtiketea.
18:00etan, umeentzako ginkanea.
19:00etan, Playback Txapelketea.
20:30ean, Sukar taldeagaz erromeria.

Garagarriak 2, domekea

11:00etan, eskupelota partiduak. Herriko umeen artekoak eta profesionalak: Amaia Aldai eta Ainara Mendizabal vs Olatz Arizabalaga eta Enara Gaminde.
13:30ean, Inbigu Gypsy Jazz taldea.
16:30ean, puzgarriak eta Kars-ak frontoian.
16:30ean, Mus eta Briska Txapelketak, Monteron eta Herriko Tabernan.
19:30ean, Antxo eta Pantxa pailazoak.
20:30ean, txokolata.



UBIDE

Arbolea, sua eta estilo ugaritako musikea egongo dira sanjuanak ospatuteko

Erredakzioa

Taldean joango dira Ubideko herriarrek basora arbola bila. Taldean herriarino ekarri eta taldean altxauko dabe, jaietan herriko plazan egon daiten. Sua, San Juan bezperan biztuko dabe, 23:00etan, ondo ilundu ostean. Txarangea, erromeria, trikitaliak, dj-a, kontzertua, umeentzako puzgarriak eta kuadrillen arteko "olinpiadak" ez dira faltauko sanjuanetan eta tonbolea eta txurro saltzailleak be egongo dira. Herriko jaiak lagunduteko eta herria apainduteko, lepoko zapiak atera ditu Jai Batzordeak. Zapiok etxeetan be ipinteko eskatu dabe batzordekoek, herria jaietan dagoala adierazoteko.

Bagilak 23, barikua

17:00etan, arbolearen bila.

19:00etan, arbolea altxau.
19:30ean, Goxo txarangea.
23:00etan, sua.
23:30ean, dj Bad Sound Sister.

Bagilak 24, zapatua

12:00etan, herri-kirolak Oketa taldearen eskutik.
13:00etan, kopaua trikitaliakaz.
18:00etan, Ubideko olinpiadak.
21:30ean, herri afaria mozorrotuta.
23:30ean, Trikiziogaz erromeria.

Bagilak 25, domekea

10:00etan, puzgarriak.
17:00etan, pelota partiduak. Ados Pilotak antolatutako San Fermin torneo: Aldaregia eta R. Larramendi vs R. Infante-Mendiburu. Garfek antolatutako torneo: Uribe eta Merino II. vs Artea II. eta Ladis Galarza.



19:30ean, herriko ume eta gazteen jantza ikuskizuna.
20:00etan, parilladea.
20:30ean, kontzertua: Garua.
22:00etan, atzen traka.

NAHIA URRUTXUA ETA ARKAITZ ESTIBALLES

"Udal kontuak gardenak izan behar dira eta gure asmoa hori bermatutea da"

EAJren 28 urteren agintaldiaren ostean, aginte makilea EH Bilduri emotea ebatzi eban Zeanurik maiatzaren 28ko hauteskundeetan. Udal gobernuaren lan egiteko modua guztiz desbardina gura dau EH Bilduk eta agintea hartu baino lehen be igarri egin da. Izan be, jokabide batzuk adostu ditue zinegotziek. Horreen artean, baktxaren ardureak eskatzen dauzan bilera guztietara, lagunduta joango dira: zinegotzi bi edo alkatea eta zinegotzia.



Nahia Urrutxua.

Erredakzioa

Jenteagaz, arkitektoagaz, aboga-duagaz edo alkarreak egiten dabean bileretan beti bi egongo dirala presente, zinegotzi bi edo alkatea eta zinegotzi bat, jakin-razo deusie BEGITURI. Baita, alkarriketa honetarako be. Eta Nahia Urrutxua, bagilaren 17tik aurrera Zeanuriko alkatea izango danak eta Arkaitz Estiballesek, zerrendan bigarrenak, erantzun deusez BEGITURI galderak.

Nahia Urrutxua Arriortuak 13 urte daroaz Zeanurin biziten. Lanbideko irakasle da eta azkenengo lau urteotan zinegotzi egon da Zeanurin.

Bost zinegotzi lortu ditu EH Bilduk datorren legealdirako. Nortuek osotuten dabe taldea? Nahia Urrutxua:

Zerrendan bigarrena Arkaitz Estiballes da. Berak 8 urte daroaz udaletxean eta atzen legealdi hau alkarregaz egin dogu. Maider Gandarias, aurten sartu da eta Eduerne Landajo eta Jokin Larraoetxea be egongo dira. Bostok osotuko dogu taldea.

Arkaitz Estiballes: Maider adi-tua da robotikan eta ingeniaritzan; Eduerne Landajo legealdi askotan egon da zinegotzi eta ondo ezetuten dau Zeanuriko jentea. Jokin da gazteena, 30 urte daukaz eta gazteen inguruan ibiltzen da eta nik kultura mundua ezetuten dot.

Imaginetan dot pozik hartuko

zenduela barria.

N.U.: Pozik eta ilusinoz gagoz eta ardura handia daukagu. Eta gogoia. Eskerrak emon gura deusez zeanuriztarrei guran konfiantzea ipinteagaitik eta gure mezua da hemen gagozala eta jenteak behar dauanean, hurreratu eta gugana etorri daitela.

Zergaitik uste dozue hainbeste urteren ostean, EAJ ez dala nagusitu?

N.U.: Guk pentsetan dogu, orokorrean, atzen lau urte honeetan jentea ez dala guztiz pozik egon Udalaren kudeaketeagaz. Batez be jenteari ez jakola entzun, eta euren ekarpenak ez dirala kontuan hartu. Hori da guk daukagun sensazioa. Ezin dogu gehiago sakondu edo errazoirik emon, baina hori izan daitekela ikusi dogu.

EH Bilduk alkatetza lortzeak zer suposatuko dau?

N.U.: Guk, argi daukaguna da Udal kontuak guztiz gardenak izan behar dirala eta gure asmoa da hori bermatutea.

Eta hori zelan egingo dozue?

A.E.: Udaletxeko webgunean egon beharko litzatekez kontuak. Ez dago eguneratuta eta gauza piloa falta dira. Herritarrek informazioa gura dabenean, zailtasunak ditue informazioa lortzeako.

N.U.: Zeanuri ez da bakarrik plaza, auzune pilo bat daukaguz eta ikusi dogu hainbat auzunetan panel informatiborik ez dagoa. Gure asmoa da, webgunea

gaurkotuteaz aparte, auzuneetan bermatutea panelak dagozala eta udal informazioa heltzean dala herritarrengana.

A.E.: Eta seguru asko auzuneetan bilerak egingo doguz, Udalaren egoerea azaltzeko eta herritarren beharrez jakiteko.

Aurrekontuak bozkatzetan beti esan dozue, prozedura ez dala parte-hartzailea. Bilera horreek parte-hartzea bultzatzeko dira?

N.U.: Jentearen parte-hartzeari buelta bat emon gura deusagu, bai. Zeanuri oso herri zabala da eta auzune guztietan bilerak egin gura doguz informazioa zabalduko, ekarpenak jasoteko eta gauzak modu parte-hartzailean egiteko.

Baina gauza batzuk ezin izango dira egin, onartuta dagoalako proiektu bat, urteetan, aurrekontuaren zati handi bat eroango dauana.

A.E.: Bai, frontoiko obrea. Obra horrek hiru jardun eukiko dauz. Alde batetik, erabilera askotako gimnasio bat egin gura da, tabernaren terraza gainean; beste alde batetik, energetikoki efiziente bihurtu; eta hirugarren lana da, bai teilatu eta fatxadak dagozan arrakalak eta itoginak, konpondutea. Proiektu horrek 1.063.000 euroko aurrekontua dauka eta hauteskundeak pasatu eta egun bitara, maiatzaren 30ean, egin zan kontratazioa ma-haia. Gu hasi gara proiektu hori aztertzen. Argi daukaguna da proie-

ktu hori berraztertu egingo dogula, hainbat arrazoiengaitik: alde batetik, irisgarritasuna beteten ez daualako. Izan be, frontoiko terraza gainean egin gura dan gimnasio horretarako proiektuan ez dalako igongailua aurrekusten. Gainera, proiektuak kontrakoa esan arren, gure ustez, gimnasio horrek hartzean dauan bolumenak eraikina handitzen dau. Eta hirugarren erro-zoia da aurtengo eta datorren urte bietako aurrekontuak baldintzatzen dituala. Horregaitik, mezua argia da: proiektu hori berraztertuko dogu. Oindino ezin dogu ebatzirik hartu, ikusiko dogu zein dan benetan horren egoerea.

Hori da oingo momentuan daukagun ardurarik handienetako bat, ze horrek baldintzatu ahal deusku asko datozen lau urteak: 2024ko aurrekontuak daborduko baldintzatura dagoz eta horrek baldintzatu deusku zer egin daikugun.

Baina onartuta dagozanez, igual ezingo da atzera egin

N.U.: Ez dakigu. Aztertu egin behar dogu.

Zeanurin bizi kalidatea ona da, ezta? Zer dauka erakargarri Zeanurik?

A.E.: Ba, Zeanuri, euskerearen aldetik, zorionez, arnagunea da. Hata guzti be, euskerea bada gauza bat kezkatzen gaituana eta Euskera Plana, aspalditik bariztau barik dagoana, bariztau gura dogu. Eta ez bariztau bakarrik, gero erabili be egin behar dogu. Jentearentzat euskeraz bizitea erakargarria da.

Inguruneak be egiten dau erakargarri Zeanuri. Baina ingurunean be badaukaguz erronkak. Emoten dau Zeanuri pago eta haretx arteko herri txiki bat dala, baina pinu eta eukalipto mota asko ugaritzen dabiz eta inguruaren gaineko hausnarke-ta bat be egin beharko da.

Eta gero, Zeanuri erakargarri egiten dauan beste gauza bat da, hemen jentea lasai bizi dala; lasaitasuna.

Badaukagu beste erronka bat, gatxa dana herri txiki batentzat aurrera eroatea, eta da, gaurko gazteek etxebizitza beste herri batzuetan topetan dabela, ez dagoa etxebizitza eskaintza nahikorik herrian. Horregaitik, programan eroan genduan etxebizitza hutsen errolda bat egin gura genduala eta

posible dan neurrian, bitartekari lanak egin etxe jaube eta etxebizitza hartu gura dabenen artean. Izan be, gauzak dagozan moduan, gazteen emanzipazioa oso gata da gaur egun, eta aztertu egin beharko da ea ze aukera emon ahalko geunken.

Zeanuri herri sakabanatua da. Auzoetan bizi dan edadeko jentearen preminak beteteko ezer pentsatu da?

N.U.: Taxi zerbitzu bat dago hango beharrezan kubriduten dauzana: medikuarenera joateko joan-etorriak, bankura edo Gurutze Gorriak antolatuten dauzan gimnasia eta hango jardueretarako joan-etorriak. Gure ilusinoa, Egunerako Zentro baten egingarritasun plana egitea da. Urteetan gabiz hori egin guran. Ez dakigu posible izango ete dan, ze esan dogun moduan aztertu egin behar dira udal kontuak. Goiz da oindino ezer esateko.

Bardintasun planerako oin-txe dabiz informazioa bartzetan, ezta?

N.U.: Oin hasi da Udala Bigarren Bardintasun Planagaz. Ipinu dau martxan. Galdetegi batzuk hasi dira pasetan. Pentsetan dogu bardintasun arloan lan handia dagoala egiteko, egiten dan guztia gitxi dala. Espero dogu bigarren fase honetan egiten diran galdetegiak ez izatea galdetegi soilak, herritarrei alkarriketak be izatea. Eta plana ez izatea kajoi baten geratzen dan papela, papelak dana aguantatzen daualako. Gero praktikan benetan ipiniko dan plana izan behar da.

Horretarako jentearen eta andra taldearen parte-hartzea behar izaten da.

A.E.: Guk hemen badaukagu Mazala andra alkarrea, eta erreferente izan behar dira. Nik uste euren laguntzea bilatuko dogula momentu guztietan.

Udalak plana martxan ipintera doala ia-ia kartelen bidez enterau gara. Hau da, gugaz inor ez da ipini kontaktuan, eta inork ez deusku azaldu bigarren plana martxan ipintera doazela be.

Sorpresa asko euki doguz hauteskundeen ostean. Bagilaren 17an plenoa egin eta 19an goizean udaletxean egongo gara. Eta gauza guztiak aztertzen hasiko gara.

ESTHER ITURRIOZ

"Gure lehentasuna personak dira, lemoaztar guzti-guztiak"

Maiatzaren 28ko hauteskundeetan, EAJk lortu eban alkatetza Lemoan. Bagilaren 17an aginte-makila hartu eta 19an, bere urte egunean, hasiko da alkate zereginetan Esther Iturrioz. Esther Iturrioz Rementería, Lemoakoa da eta Iturritxe auzoan bizi izan da beti bere familiagaz. Lemoa, bere pasino eta lanlekua dala dino. Bertako eskola publikoan 24 urte daroaz behar egiten eta horrek Lemoa hurretik eta sakon ezetuteko aukerea emon deutso. Politikan be ibilbide luzea dauka Iturriozek; izan be, lau legealditan zinegotzi izan da Lemoako Udalean, eta atzenengoan, 2019tik 2023ra Bizkaiko Batzar Nagusietako batzarkidea be izan da, datorren legealdian errepetiduko dauan kargua.



Esther Iturrioz.

Erredakzioa

EAJko zazpi izango zarie udal gobernuan.

Bai. Egia da, sorpresa izan dala zazpi jarleku lortzea. Hori onartu behar dogu. Baina gogotsu eta itxaropentsu gagoz.

Oso harro nago lortu dogun taldeagaz. Batzuk udal politikan eskarmentu handikoak gara, batera egondakoak udalean. Esate baterako, Iñigo Zuloaga aurrekoetan hautagaia izan zana, edo Urko Garamendi komunikazio munduan lan egiten dauana eta zinegotzi esperientzia handia daukana. Iñaki Barrenetxea, AUMko koordinatzailea da eta hainbat legealditan zinegotzi egon da eta Zuriñe Etxebarria, zeanuriztarra baina Lemoara etorritakoak be badauka esperientzia, legealdi

Lemoa bidekurutzean dago, Arratia eta Durango tartean, eta horrek beste aukera batzuk emoten ditu, bertan bizi eta lanera edo dana dalakora mobiduteko

honetan gugaz egon da-ta. Arpegi barriak be badaukaguz. Hor dago Oñeka Zaballa gaztea, abogadua eta aitagaz abeltzaintzan egiten dauana behar. Eta Raquel Ortega, kanpotik etorri dana, Galdakaotik, eskolan oso sartuta, perfil bikaina. Hezkuntzan dauka formakuntzea baina segiduten dau ikasten.

Lau andra eta hiru gizonezko.

Bai, hori zaindu egin dogu. Ni neu Hezkidetzan eta bardintasun inguruan ibilia naz eta asko zainduten dot hori. Nire DNAn dagoala esango neuke, nire geneetan.

Pentsetan dot taldea herriaren gustukoa izan dala. Lemoa oso ondo ezetuten dogu eta herriak daukan aniztasunari erantzuten deutso. Guztion konpromisoa handia da. Eta ilusinoa eta ardureagaz egingo deusagu aurre etapa barriari.

Zazpi zinegotzi lortzea sorpresa bat izan dala dinozu.

Bai. Desabantailan ikusten genduan geure burua, ze EH Bildukoek, agintean egonda, errazago eukien egindako lana herriari heldu arazoteko. Baina azkenengo urteetan herriaren ondoan egon gara, entzute aktiboagaz, oposizioan, lanean. Auzoetan egon gara jenteagaz, beharizan jakiteko eta udallexera eroan eta urtenbide bat bilatzeko.

Gero, talde anitz, indartsu eta gogotsu bat osotu eta herritarrak batera egin genduan hauteskunde programea, 150 ekimen inguru batzean dauana eta "Lemoa: argi eta garbi" lelopean. Azkenengo aspetean, ideologia guztietako jentea hurreratu jaku animoak emoten eta babesa eskaintzen. Hori be igarri dogu herrian.

Zer aldatuko da eta zer mantenduko da Lemoan? EH Bildu agintean egon danean, herria asko dotoretu eta jentearen bizi kalidatea hobetu egin dala esango neuke.

Bai. Eta bizi kalidatea hobetutea

lortu daben neurri guztiak mantenduko doguz, eta aurrera egiten jarraituko dogu. Hori da gure helburua. Izan be, gure lehentasuna personak dira: lemoaztar guzti-guztiak. Horregaitik, bizi kalidatea hobetu dabenak mantendu eta, ahal dan neurrian, hobetu be egingo doguz.

Oin, udal arloak definidu eta osotuko doguz eguneroko lanean eraginkoragoak izateko, eta gure ibilbide-orria marraztu behar dogu: bizi kalidatea hobetuteko, proiektuak dimensionetako eta kohesinoa lortzeako.

Atzen 20 urteotan, biztanle kopuruan, Arratian gehien hazi dan herria Lemoa izan da. Zer dauka erakargarri?

Gauza asko. Familia asko etorten dira Lemoara bizitza proiektua gartzera. Lemoan daukagun garraio publikoa, esaterako, oso tresna baliagarria da. Lemoa bidekurutzean dago, Arratia eta Durango tartean, eta horrek beste aukera batzuk emoten ditu, bertan bizi eta lanera edo dana dalakora mobiduteko. Beste abantaila bat eskolea da. Hemen IPI zentroa daukagu, eta haur eskolea be bai. Hori dala-ta, herrian bertan, 4 hilabetetik 16 urte arte ikasi daiteke.

Jentea etortez gainera, bertakoek alde ez egitea be erronka izan daiteke.

Bai. Gazteen bizi proiektuak gartzeko, etxebizitzak behar doguz: etxebizitza sozialak. Eta aisialdirako egiturak. Aisialdirako egiturak egon badagoz, baina egokitze lan batzuk egin gura doguz; espazio batzuei, herriagaz adostuta, erabilera emon; eskola aurrean dagozan, tranbiaren kotxetegi izandako espazio horrerik, esaterako. Atzenean, espazio publikoa bizi kalidatea hobetuteko da.

Ekonomia da beste ardatz bat. Eta Arratiako Udalen Mankomunitateagaz, Foru Aldundiagaz, Errota

Fundazioagaz eta Eusko Jaurritzeagaz lan bat dago eginda eta bultzadea emongo jako: komertzioei eta ostalaritzari laguntzak, gazteentzat sortzeko aukerak emon, enplegu plana elikatu...

Euskereagaz erronka handia daukagu. Euskera Planari ekin behar deusagu, asko daukagu egiteko. Euskerea batzean gaituan zoezer izatea gura dogu, inor baztertu barik.

Mobikortasun iraunkorago bat lortzeako be aukerak aztertu behar dira Lemoan. Kale batzuk norabide bakarrean ipini dira eta horrek badauka bere zentzua, baina suposatzen dau hain iraunkorrak ez izatea.

BFAk proiektu pilotu bat dauka Arratiarako eta pilotaje hori Lemoan egingo da. Eskaerearen arabera mobikortasun iraunkorerrako proiektua da, emaitza onak baditu, sakabanatutako eremuetan apliketako. Hau da, nagusiak herrigunera etorteko eta gazteak unibersidadera joateko kotxe partikularrak erabili barik...

Lehen aitatu dozu zure DNAn dagoala bardintasunarena. Zelan ikusten dozu Lemoa alde horretatik? Nondik jo beharko litzateke?

Bardintasun planak ipinten dauz neurriak. Lemoan, arazo bat dago argiztapen falteagaz, eta hori konpondu gura dogu. Hortik gure leloa "Lemoa: argi eta garbi". Bardintasun foroa be sortu barri da, baina parte hartzea... Hor lortu behar dogu herria gehiago inpliketea.

Bardintasun plana apliketan lan piloa egiten dabe erakundeek, eskolatik hasita. Lan prebentiboa, baina gero ikusten da ez dala nahikoa. Aspalditxo honetan zoritxarrez, hilketa matxistak be egon dira. Eta batzuetan emoten dau egindako ahalegin guztiek ez dabela ezertarako balio, baina ekin eta ekin lortu behar dogu bardintasuna. Horretarako erakunde guztien alkarlana behar da.

FUTBOLA

Udako Kanpusa antolatu dau Arratia futbol taldeak

Erredakzioa

Bagilaren 19ra arte emon daiteke izena bagilaren 26tik 30era Urbieta zelaian egingo dan Arratia taldearen Futbol Kanpuserako.

Arratia Futbol Taldeak aurten be antolatu dau udako futbol kanpusa. Futbolean olgau bakarrik ez, urtekeraz zein jolas eta tailerrak egiteko aukerea izango dabe aste batez 2011 eta 2018 urteen artean jaiotako neska-mutiek. Udalekuko ordutegia goizekoa izango da, 09:30etik 14:00etara.

Parte hartuko dauan ume baktzak 100 euro ordaindu be-

harko dauz. Horregaz eguneko armozua eta kamiseta bat be hartuko ditu. Izena emoteko 688 777 117 edo 94 631 57 04 telefonora deitu edo cdarratia@cda-rratia.com helbide elektronikora idatzi behar da.



BOLA-JOKOA

Amaitu da 2022-2023 bola denporaldia

Hilaren 3an jokatu zan Zornotzako Gure Kirolak bolatokian Euskadiko Banakako Txapelketa.

Erredakzioa

Gizonezkoetan Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako komarkaletako lehen hamalauk hartu eben parte, bai eta herrialde baktzeko txapel-dunek. Andrazkoen artean barriz, komarkaletako lehen biak eta lurralde baktzeko txapeldunek.

Andrazkoetan, Bea Isasi arabarrak irabazi eban (154 puntu), Josune Sarrionandia Zornotzako izan zan bigarren (145 puntu) eta Oba taldeko Ana Goitiak, Bizkaiko Txapelduna, hirugarren egin eban (144 puntu). Gizonezkoetan Iker Zearreta zornotzarrarentzat izan zan lehen postua 173 puntu lortuta, bigarren postua Jose Luis Arregirentzat izan zan 169 puntugaz eta podiuma Julen Iriondok osotu eban 168 puntu lortuta. Laugarren postua Dimako Juan Mari Aurtentxerentzat "Txirpu" izan zan (163 puntu) eta bosgarrena Beñat Gorroperentzat (162 puntu).

Komarkala

Maiatzaren 20an Zornotzako Gure Kirolak-en jokatu zan Bizkaiko LVIII. Komarkaleko Bola-jokoaren Txapelketako atzen jardunaldia. San Miguel taldea urten zan garaile 355 puntugaz. Talde arratiarrak ostera, atzetik ibili ziran: San Kristobal hirugarren (336 puntu), Oba zazpigarren (311 puntu) eta Lemoa zortzigarren (303 puntu).

Beraz, holan gelditu da sailkapen orokorra:

- 1-. San Miguel, 3.562.
- 2-. Belatxikieta Elkartea, 3.394.
- 3-. San Pedro Boroa, 3.364.
- 4-. San Antonio C, 3.318.
- 5-. Lemoa, 3.287.
- 6-. Oba, 3.229.
- 7-. Epaltza, 3.209.
- 8-. San Antonio B, 3.193.
- 9-. Elorriaga, 3.142.
- 10-. Betiko Belatxikieta, 2.971.
- 11-. San Kristobal, 2.897.



PELOTEA

Hirutik txapel bi jantzi ditu Aldaik

Zaramaga eta Mallabian jokatu ebazan irabazitako final biak hilaren 8an eta 9an.

Erredakzioa

Lehenengo finala Zaramagan jokatu eban Aldaik hilaren 8an eta Naroa Agirregaz batera 22-19 irabaztea lortu eban Leire Garai eta Enara Gaminderen kontra. Partiduko lehenengo zatian Aldaik eta Agirrek partiduaren kontrola euki arren be, bigarren zatian, bikote aurkariak Aldai jokoz kanpo itxi eban markagailua 19na egon arte. Azken zatian, bikote gorriak erakutsitako sendotasunak eta egindako erremateek partidua barriz bideratu eben eta irabazi ahal izan eban partidua dimoztarrak.

Bigarren finala Mallabian jokatu

eban Enara Gaminderen kontra eta final nahiko erraza izan zala adierazo eban Aldaik. 10 eta 0 irabazten hasi zan eta azkenean 22 eta 6 nagusitu zan arratiarra. Aurkaria "oso gaztea" dala eta esperientzia falta horrek berari on egin eutsala azaldu eban Dimako pelotariak.

Nafarroako Foru Komunitatea Torneoa


Bagileko lehen astegoienean ostera Nafarroako Foru Komunitatea Torneoa jokatu eban Leire Galeanogaz batera. Ligaxkako bigarren partiduan legez, eta markagailuan 18-14 aurretik joan baziran be, Aldai eta Galeano ez ziran Garai eta

Gaminde irabazteko kapaz izan. Partidua ondo hasi baebe be, partiduaren azken partean bikote urdinak jokoa atzean kargau ebala azaldu eban Aldaik.



Amaia Aldai.

ORGANIKOAREN BILKETA SELEKTIBOA SUSTATZEKO INFORMAZIO-PUNTUAK ETA HONDAKINEN KARAKTERIZAZIO PUBLIKOAK:

	HERRIA Lekua	INFORMAZIO- PUNTUAK ETA MATERIALEN BANAKETA	HONDAKINEN KARAKTERIZAZIOAK
EKAINAK 13 martitzena	BEDIA Plazan	10:30-13:30 16:00-19:00	18:00 Plazan
EKAINAK 14 eguztina	DIMA Plazan	10:30-13:30 16:00-19:00	18:00 Plazan
EKAINAK 15 eguna	ARANTZAZU Plazan	16:00-19:00	18:00 Plazan
EKAINAK 16 barikua	UBIDE Plazan	16:00-19:00	18:00 Plazan
EKAINAK 17 zapetua	LEMOA	10:30-13:30 Estankoaren ondoan	
EKAINAK 19 astelehena	LEMOA	10:30-13:30 Arraibi 16:00-19:00 Estankoaren ondoan	18:00 Estankoaren ondoan
EKAINAK 20 martitzena	ARTEA Plazan	10:30-13:30 16:00-19:00	18:00 Plazan
EKAINAK 21 eguztina	AREATZA Plazan	10:30-13:30 16:00-19:00	
EKAINAK 22 eguna	ZEANURI Plazan	10:30-13:30 16:30-19:30	17:00 Plazan
EKAINAK 23 barikua	IGORRE Lehendakari Agirre kalean	10:30-13:30 16:00-19:00	
EKAINAK 24 zapetua	IGORRE Lehendakari Agirre kalean	10:30-13:30	



ARRATIAKO VDALEN
MANKOMUNITATEA



LASTO BOTATZE

Bizkaiko Lasto Botatze txapelaldun izan da "Tubi"

Erredakzioa

Bagileko lehen astegoienean, Arratzun jokaturako Bizkaiko Txapelketako txapela jantzi eban Jose Martin Bustinza "Tubi" k 6,10 metroko markeagaz.

Beñat Obieta, Eloy Salterain eta taldekidea dan Jon Loiolaren kontra egin eban eta egunik onena euki ez arren markarik onena lortu eban herri-kirolari dimoztarrak. Tubik bere burua ondo ikusi ebalu eta egindako markeagaz gustura geratu zala adierazo dau.

Dimako auzokide dan Jon Loiolak ez eban egun ona izan eta azkenengo postua lortu eban 4,8 metroko markeagaz, halanda be Tubik, Jon beti lagunduteko eta esku bat botateko prest dagoala azaldu dau.

Tenporada hasikerea dala-ta oin-dino hobetuteko asko dauala adierazo eban Tubik, baina halanda be plazatan egoten segidutea dala garrantzitsuena azpimarratu eban.

Garagarriaren 23an, Bizkaiko Lasto Altxatze Txapelketea jokatuko dau Berangon.

PELOTEA

Arratziar bi trinketean azpitzapeldun

Erredakzioa

Lur Ziarrusta dimoztarrak eta Mikel Aurrekoetxea lemoztarrak, eskuz binakako txapelketako bigarren postua lortu eban Trinkete Kluben Arteko Txapelketan.

Hilaren 10ean, txapelketako finala Abadiñoako Tornosolo trinketean jokatu eban Lemoa klubeko bikoteak eta partiduko lehenengo zatian 19-10 irabazten hasi baziran be, Ziarrustak eta Aurrekoetxeak ezin izan eban txapela jantzi. Tantu gogor- rrek eta luzeak izan ziran baina azkenean Eple klubeko bikoteak lortu eban garaipena arratziarrei, 40-27 irabazita.

Halanda be, dimoztarrak adierazo dau oso pozik dagozala bai Au-



rrukoetxea eta bai bera egindako txapelketeagaz eta garrantzitsuena

finalera heldu eta horretaz disfrutetea izan dala.




amorrortu
 taberna - jatetxea - ostatua


OSTATUA
 638 712 523

Zubiarte 1, • 48130 LEMOA - Bizkaia
 www.alejamientolemosa.com
 info@alejamientolemosa.com

Arantzazu


Arantzazuko Udalak eta Jai Batzordeak

Jai askeak eta zoriontsuak opa deutsuez


BEDIA


Bediako Udalak eta jai batzordeak

Gora San Juan jaiak!


JAI ZORIONTSUAK OPA DEUTSUEZ

Ubide


Jai batzordeak eta Ubideko Udalak jai zoriontsuak opa deutsuez

Gora San Juanak!





Udala osatzen dogun pertsona guztien izenean, dimoztarroi San Pedro zoriontsuak opa deutsueguz.




Dimako Udala

HARROTASUNAREN NAZINOARTEKO EGUNA

Bagilaren 28an, LGTBI Harrotasunaren Nazinoarteko Egunean, Zinegoak jaialdiko sei film labur egongo dira ikusgai Zeberion

Emonaldia 20:00etan izango da Zeberioko udaletxeko 2. solairuan.



Erredakzioa

Seyed Mohsen Pourmohseni Shakib-en *It's a Gray, Gray World*; Isa Luengo eta Sofia Esteveren *Perpetua felicidad*, Paloma Lopez-en *Girls and The Party*, Alejandra Buenoren *Ezohikoak*, Marta Nietoren *Son*, Raul Barrerasen *Arnasa* eta Maider Oleagaren *Irrits* dira ikusi ahal izango diran filmak.

Sinopsiak

Seyed Mohsen Pourmohseni Shakib iraniarrak zuzendutako *It's a Gray, Gray World* 5 minutuko animazio filma da. Mundu

gutziz gris baten, gazte konserbadore baten nortasun koloretsua ustebakoan, haur baten jolasek agirian ipinten dabe. Jenteak, bildurtuta, poliziari deitzean deuto gaztea atxilotu dagian. Baina gazteak iges egitea lortzean dau, eta biharamunean itzultzen da askatasunerako eskubidea defendiduteko" dino sinopsiak.

Isa Luengo eta Sofia Esteveren *Perpetua felicidad* pelikuleak, 15 urteko Almaren istorioa kontetan dau. Almak herriko koruan kantetan dau eta bere sexualidadea deskubriduten doa. Bere aitak, abesbatzako zuzendariak,

ahotsa galdu dau laringetomia bategaitik. Udako jaietako kontzertua prestatzen dabiz eta eguna hurreratu ahala aita-alabaren arteko tensinoak handituz doaz.

Paloma Lopez-en *Girls and The Party* (AEB, 2020) filma ingelesez dago, euskerazko eta gaztelaniazko azpitoluakaz. 16 urteko neska batzuk dabiz bainugelana festa baterako prestatzen eta Mercedesek bere lagun Juliarenganako gero eta biziagoa dan erakarpena aske ixten dau.

Alejandra Buenok euskal matriarkaduaren mitoa deseregigura dau *Ezohikoak* pelikuleagaz.

Helburua da erakustea gure historia, estereotipo eta idealetatik kontau dala, eta andrak ez dirala ia agertu historian. *Ezohikoak* bideo-sormena da, Gasteizko Pilar Arostegi Udal Artxiboak itxitako argazkiakaz egindakoa, Gazte Sortzaileak 2021 bekeari esker.

Marta Nieto zuzendariaren lehenengo lana da *Son*. Film honegan, ama eta seme trans baten arteko hartu-emona momentu zehatz baten kontetan da. Basoan, euren arteko alkarriketa baten ikusiko da 6 urteko umea trans-a dala eta eskolan *bullying*-a egiten deusiela.

Zorion Egileor eta Eneko Sagar-doy dira Raul Barreras zuzendariaren *Arnasa* pelikulako aktoreak. Hernaniko baserri baten kokatuta dago eta edadekoen zaintza eta LGTBIQ kolektiboan agertzen diran arazo batzuk landuten ditu.

Maider Oleagaren *Irrits* 15 minutuko filmak 17 urteko neska biren istorioa kontetan dau. Izaro eta Clara, umeentzako udalekuetan, begirale lanetan dabiz. Halako baten, Clarak irrikaz mosukatzen dau Izaro.


LEHIAKETEAK

Areatzako Jaietako Kartel Lehiaketarako lanak aurkeztu daitezke

Erredakzioa

Kartelak aurkezteko epea garagarriaren 14an, ordu bietan amaituko da. "Areatzako Jaiak 2023, Abuztuaren 23tik 29ra" testua derrigor agertu behar da. Lanak Areatzako udaletxean aurkeztu behar dira sinatu barik. Kartelak 60/40 cm-ko tamainua eukiko dau, baina A3 paperean aurkeztu beharko da. Kartel bakoitzagaz batera eta gutunazal zarratu batean egilearen datuak -izena eta abizen bi, helbidea eta hartu-emonetarako telefono zenbakia- aurkeztuko dira. Irabazleak, 150 euro jasoko ditu saritzat.

Epaimahaiak garagarriaren 14an berean jakinarazoko dau irabazlea zein dan. Jaietako kartel irabazlea argitaratzeko konpromisoa hartzean dau Udalak eta jaietako liburuxkan be agertuko da.



MUSIKEA ETA JANTZEA

Dimako ume jantzariek Korrontziren emonaldian hartuko dabe parte jaietan

Erredakzioa

Dimako jaietan, bagilaren 30ean, 21:30ean, Korrontzi folk musika talde abangoardista ezagunak, emonaldia eskainiko dau. Beragaz batera, Gazte Barri jantza taldeko jantzariak egongo dira. Izan be, jantza taldeko umeak kantu birezko koreografiak prestatzen dabiz Korrontziren emonaldian jantzan egiteko.

Dimako Jai Batzordearen idea izan zan Korrontzik eta Gazte Barrik alkarregaz zeozer egitea. Gazte Barri taldeko umeak talde bitan bananduta dagoz: Txikiak 5 eta 9 urte bitartean eta Nagusiak 10 eta 13 urte bitartean. Txikiak, nagusiakaz batera, abesti bat jantzatuko dabe eta ostean, ikas-

le nagusiek eurek aukeratutako beste abesti bat. "Momentuz abesti bi prestatzen dabiz baina baleiteke besteren bat be egitea" azaldu deusie BEGITURI Gazte Barri taldeak.

Korrontzi

Korrontzi folk musika taldea Agus Barandiaran trikitilariak sortu eban 2004an. Bere helburua, banda hau sortzean, euskal musika herrikoari eta antzinako hots tradizionalak, ikuspuntu moderno eta garaikideagoa emotea zan, trikitixan oinarrituta eta txalaparta edo alboka lango beste instrumentu tradizional batzuk ardatz hartuta. Musika tradizionala egitea abangoardiako ikuspuntu batez, hain zuzen be.



MUSIKEA

Rantxerak Bediako jaietan Puro Relajo taldeagaz



Erredakzioa

Bagilaren 25ean, sanjuanetako jai egitarauaren barruan, Puro Relajo taldeak 19:00etan joko dau Bediako plazan. Talde nafarrak 10 urte daroaz rantxerak eta beste kantu herriko batzuk kantu eta jentea jantzan ipinten eta horixe egin gura dabe Bedian be, herriko jaietara amaierea emoteko.

Bere ibilbidean, Puro Relajok 8 disko argitaratu ditu. Atzena *Esencial* (2023) izeneko konzertu biran dabiz aurkezten eta disko horretako kantuak be entzun ahal izango dira Bedian. 700 konzertu baino gehiago emon dauz taldeak; tartean, Iruñeako sanferminetan eta Donostiako Aste Nagusian, barbarako.

EUSKEREA

Ikasturte barrirako aurrematrikulazino kanpaina abiatu dau AEK-k



Erredakzioa

Bagilaren 28a baino lehen izena emoten dabiz ikasleek %5eko deskontua eta ordainketa malgua izango dabe. Gainera, lehentasuna izango dabe ikastaroetan. Igorreko Kubulu Euskaltegian edo euskaltegiko 94 631 56 57 telefonoan, edo beste edozein euskaltegian; 673 200 100 eta 946 46 40 00 telefonoetan, eta www.aek.eus webgunean egin daiteke aurrematrikulazino.

AEK daborduko hasi da ikasturte barrira prestatzeko lanetan eta

datorren ikasturtean be, euskaltegietan aurrez aurreko taldeak, autoikaskuntza, *online* ikastaroak eta jardun biko ereduak be eskainiko dau. Gogoratu Arratia, Ubi-de eta Zeberioiko udalek laguntzak emoten dabezala euskera ikasten dabizantzat.

Udan be mintzataldeak

AEK-k udarako mintzataldeak sortu gura ditu eta izena emoteko whatsapp bialdu behar da 662 199 033 telefonora, Kubulu Euskaltegitik pasau edo lotura honetan izena emon: <http://ema-nizena.praktikatu.eus/>.

DUNBA

Gure estresari aurre eginez

Areatzako 3. zikloko ikasleok Erromatar inperioaren proiektua landuten gabiz, atarian aitatu genduan legez. Oin, antzerkia idazten amaitu dogunean ensaioak egiten gabiz, proiektuaren azken pausua.

Areatzako Herri Eskolako ikasleak

Horretan genbizala, konturatu ginan bildur eszenikoa daukagula eta urduri ipinten garala. Ondorioz, erlajazino teknikak egiten ikastea ebatzi genduan. Horregaitik, urduritasuna gaia hartuta sakondu eta ikusi dogu gauza asko dituala, beste batzuen artean estresa be sortu daikela. Gizartean egindako ikerketa desbardinek hori egiaztatzen deuskue: 10-12 urteko bitarteko gazteen artean %40 estresauta dagozala esaten dabenean.

Horrek guregan eukan eragi-

na ikertzeko galdetegi bat osatu genduan. Lehenik, hainbat artikulutan irakurritako informazioa landu genduan, gure adinean estresak sortzean dituan sintomak eta kausak bilatuz.

Bigarrenik, horregaz guztiagaz, galdetegi sortu eta bete genduan eta jasotako erantzunak modu grafikoan adierazo eta interpretatu genduan. Beste batzuen artean estresa sortzean deuskuen errazoi honek atera genduan: jente-aurrean aurkezpen edo antzeppen bat egiteak, gela aldaketak, lagunakaz haserretzeak, edo lan gehiegi

eukiteak... Eta horreek argi adierazoten deuskuezan sintomak honek dira: gorputzeko mina (tripako edo burukoa), konzentrazino zailtasunak, apetituaren alterazino, lo faltea edota nekea eta umore aldaketea. Azkenik, zenbait egoeratan estresetan garala jakin genduan, orokorrean ez gagozala estresauta agertu arren.

Beraz, holango egoerei aurre

egiteko hainbat tresna ikasi eta lantaldeak sortu genduan. Holan, erlajazino teknikak prestatu eta praktikan ipini genduan bigarren eta hirugarren zikloko ikasleakaz (Jacobsonen eta Shultzzen metodoa, yoga, bisualizazino, arnasketea...). Zelan ez, teknika horreek garrantzitsuak dirala ulertu genduan.

Ha-ta guzti be, hori guztia egin



eta ez gara geratu konforme. Horregaitik, beste edonorentzat baliagarria izan eitekelakoan, ikasi eta bizitakoa triptiko baten aurkeztea ebatzi dogu: labur, dotore eta zehatz. Triptikoan aurrez azaldu-takoaz gain, estresari aurre egiteko aholkuak be jarri doguz: jan era orekuan, lo egin behar beste ordu, antolatu egunerokoa, ez izan perfekzionista, praktikatu kirola...

Amaitzeko, gure uste apalean, gero eta azkarrago doan gizarte honetan lasai biziten ikasi behar dogu. Horretarako, egunerokoa, geure burua zaintzen eta erlajazino ikasiz eta praktikara eroanez, bizia kalidadezkoa izatea lortu geinke.

AGENDEA

BAGILAK 15
ARANTZAZU

Arratia Garbia kanpaina. 16:00etatik 19:00etara, informazio puntua eta materialen banaketea; 18:00etan, hondakinen karakterizazioa plazan.

AREATZA

Bagilaren 18rako, Guraso Elkarteak eta Lamino Kirol Klubak antolatutako Lekeitiara txangorako izena emoteko atzen eguna 627 021 082 eta 646 355 550 telefonoetan.

Jaietako Kartel Lehiaketea. Lanak garagarriaren 14ko 14:00ak arte aurkeztu daitezke udallexean.

ARRATIA

08:00etatik 14:00etara, hilaren 16ra arte, ardi-ule bilketarako izen-emotea, Gorbeialde Landa Garapen Alkartean edo 94 631 55 25 telefonoan.

BEDIA

16:30etik 19:30era, atzen eguna, sanjuanetan playback-ean parte hartzeako eta txosnan laguntzeko izen-emotea liburutegian.

IGORRE

Igorreko jaiak bagilaren 18ra arte. Ikusi egitaraua 6. orrialdean.

Bagilaren 19ra arte, *Herri argia - Baserriko lanetik, gaurko kirolaria* erakusketea Kultur Etxean.

Hilaren 19ra arte, hilaren 26tik 30era izango dan CD Arratiako udako kanpuserako izen-emotea, cdarratia@cdarratia.com posta elektronikoa edo 688 777 117 eta 94 631 57 04 telefonoetan. Prezioa: 100 euro.

LEMOA

10:30etik 12:30era, Lemoax Jubilatuta eta Pentsiodunen alkarteak antolatuta, sakeleko telefonoari probetxua aterateko oinarriko ikastaroa jubilatuen alkarteko lokalean.

17:30ean, 3. adinekoen sexualidadearen gaineko zineforuma eta dokumentala eta tertulia. 65 urtetik gorakoentzat.

ZEANURI

Bagilaren 25era arte, Gorbeia Jubilatuen eta Pentsionisten alkarteak garagarriaren 5erako antolatutako Arnedora txangora joateko izena emoteko epea.

ZEBERIO

Bagilaren 16ra arte, udalquetarako izena emoteko epea zabalik.

Austarri Mendi Taldeak antolatutako hilaren 24-25 astegoieneko mendi urtekerarako izen-emotea hilaren 20ra arte, 665 735 054 eta 656 415 597 telefonoetan edo austarrimenditaldea.com webgunean emon daitezke izena.

BAGILAK 16
AREATZA

22:30ean, Txarly Usher y los ejemplares taldearen kontzertua Bixer tabernan.

ARTEA

19:30ean, Arratiako Musika Eskolearen kontzertua Herriko Bentan.

DIMA

19:30ean, Julen Arzuagaren berbaldia, *Tortura Euskal Herrian* Abaroan.

LEMOA

18:30ean, Lemoako antzerkigintza taldeak *7 herrialdeetako argi bola* Karabie Gaztetxean.

UBIDE

Arratia Garbia kanpaina. 16:00etatik

19:00etara, informazio puntua eta materialen banaketea; 18:00etan, hondakinen karakterizazioa plazan.

ZEBERIO

20:00etatik 21:00etara, Austarri Mendi Taldeak antolatutako hilaren 24-25 astegoieneko mendi urtekerarako izen-emotea lokalean.

Austarri Jai. 18:00etan, Asanblada orokorra; 19:15ean, jantza karibearra (koreografia); 19:30ean, jantza-plaza; 20:00etan, txistorra eta musika. Plazan.

BAGILAK 17
AREATZA

Lamino Kirol Klubak eta Gorbeako Gurutzea Athletic Club Peñak antolatuta, mendi urtekera Urkidi mendian buzoia ipinteko. 09:00etan, oinez joateko eleiza portikuan; 10:30ean, buzoia ipini Urkidin. Ostean, hamaiketako Upokomakatzan.

20:00etan, Four Friends taldearen kontzertua The Quiet Corner tabernan.

DIMA

07:00retan, Urkiolara oinez joateko batu. Errogatibea.

IGORRE

07:00retan, Urkiolara oinez joateko batu. Errogatibea.

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

ZEANURI

07:30ean, Urkiolara oinez joateko batu. Errogatibea.

BAGILAK 18
AREATZA

09:00etan, Lamino Kirol Klubak eta Guraso Elkarteak antolatuta, Mendexa Abentura Parkera txangoa. Ostean, Lekeitioko Karraspio hondartzara. Egun osoa Karraspio hondartzan pasetako be aukerea dago. Bazkaria eroan behar da. Eleiza portikuan.

BEDIA

11:00etatik 14:30era, Merkataritza, Artisautza eta Elikadura Azokea plazan; 12:30ean eta 13:30ean, txakoli eta bermut dastaketak.

DIMA

XXIX. Kazari eta arrantzaleen eguna. Zumeltzako aerodromoan.

LEMOA

Ganzabal Mendi Taldeak antolatuta, 50 tontor baietz! erroakea. Mendi batera igo,

tontorrean argazkia egin eta Ganzabalera bialdu.

BAGILAK 19
LEMOA

Arratia Garbia kanpaina. 10:30etik 13:30era arte, informazio puntua eta material banaketea Arraibin; 16:00etatik 19:00etara, estankoaren ondoan. 18:00etan, hondakinen karakterizazioa estankoaren ondoan.

BAGILAK 20
ARTEA

Arratia Garbia kanpaina. 10:30etik 13:30era, eta 16:00etatik 19:00etara, informazio puntua eta material banaketea plazan. 18:00etan, hondakinen karakterizazioa plazan.

BAGILAK 21
AREATZA

Arratia Garbia kanpaina. 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, informazio puntua eta material banaketea plazan.

ARTEA

20:00etan, Kokomarroek antolatuta, solstizioaren ospakizuna Santamañen.

IGORRE

17:00etan, Akrobazia talde barri eta aurreratuen zirkul emonaldia *Sasi guztien gainetik, laino guztien azpitik* Lasarte Aretoan.

LEMOA

18:00etan, Kantu Koloreren *Peru kokrodiloa* ikastetxeko aterpean. Kurso amaierako jaiak.

BAGILAK 22
BEDIA

Ludoteka zerbitzua zarratu egingo da urri lehenengoaren 5era arte.

Bediako San Juan jaiak hilaren 25era arte. Ikusi programea 5. orrialdean.

DIMA

18:00etan, Ilgoran Arratiako Andren Jabekuntza Eskolako batzarra. Jubilatuen lokalean.

LEMOA

19:00etan, Arte Ederrak eta Memoria Historiko proiektuaren aurkezpen ibilbidea Iker Vazquezen eskutik. Ikastetxeko sarreran.

ZEANURI

Arratia Garbia kanpaina. 10:30etik

13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, informazio puntua eta material banaketea plazan. 17:00etan, hondakinen karakterizazioa.

BAGILAK 23
ARANTZAZU

San Juan jaiak. 18:00etan, plazan egurra batzeako; 20:30ean, sardinak eta saiheski errea eta 21:30ean, sua iziotu.

AREATZA

San Juan sua. 19:00etan, Malas Compañías Zirkul Taldearen *Zirkus* ikuskizuna plazan; 20:00etan, sardina jana Zubizaran; ostean, sua.

ARTEA

20:00etan, sardina jana eta San Juan sua Santamañen.

IGORRE

Arratia Garbia kanpaina. 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, informazio puntua eta material banaketea Agirre Lehendakaria kalean.

San Juan auzoko jaiak. 20:00etan, jai hasikerako txupina; 300. urteurrena dala-ta egindako kamisetak salduko dira. Ostean trikitaliak; 20:30ean, sardina jana; 22:00etan, San Juan sua eta 22:30ean, Kittu taldeagaz erromeria.

LEMOA

19:30ean, San Juan jaiak. Umeentzako ekintzak, jana eta edana, Arbasoak taldea eta ostean sua.

UBIDE

Ubideko jaiak hilaren 25era arte. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

ZEANURI

Jaiak Altzuagan. 15:00etan, jai hasikerako txupina; 21:00etan, sardinak, txarri giharra eta txokolata. San Juan sua eta trikitalia.

BAGILAK 24**ARTEA**

12:00etatik 20:00etara, Bigarren Eskuko Truke Azokea. Plazan. Izena emon hilaren 19a baino lehen 669 111 254 eta 630 347 018 telefonoetan.

BEDIA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

IGORRE

Arratia Garbia kanpaina. 10:30etik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara, informazio puntua eta material banaketea Agirre Lehendakaria kalean.

San Juan auzoko jaiak. 12:00etan, mezea. Ermitearen 300. urteurrena. Ostean trikitaliak.

ZEANURI

Altzuagako jaiak. 12:00etan, jantzariak; 13:00etan, mezea, barauskarria eta zozketea; 19:00etan, Bola-joko Txapelketea eta 21:00etan, auzo afaria.

ZEBERIO

08:00retan, Austarri Mendi Taldeak antolatuta astegoieneko pasako mendi urtekera. Mencilla (1.292 m) San Lorenzo (2.271 m). Aukeran: Manquillo-Pineda de la Sierra bide berdea (10 km 250 m+) edo Valdezkaray-Urdanda (12 km 77+).

BAGILAK 25
LEMOA

Ganzabal mendi urtekera. Kruzeta (1.169 m)-Montemayor (1.104 m).

BAGILAK 26
AREATZA

Bagilaren 30era arte, udalquetak.

ARTEA

Bagilaren 30era arte, udaleku irekiak.

BEDIA

Garagarriaren 7ra arte, Udalak antolatutako Txiki Txokoa eta Udaleku irekiak.

Garagarriaren 14ra arte, Liburutegian udako ordutegia: 10:00etatik 13:00etara.

IGORRE

09:30etik 14:00etara, hilaren 30era arte, CD Arratiako udako kanpua.

17:30etik 20:00etara, garagarriaren 26ra arte, "Herri jolasean" Zazparrak taldearen eskutik udalquetako landan. Garagarriaren 28ra arte, udalquetak.

BAGILAK 28
ZEBERIO

20:00etan, Zinegoak film laburrak udalquetako 2. solairuan. *It's a Gray, Gray World, Perpetua felicidad, Girls and The Party, Ezohikoak, Son, Arnasa* eta *Irrits* filmak.

BAGILAK 29
ARANTZAZU

Arantzazuko San Pedro jaiak garagarriaren 2ra arte. Ikusi egitaraua 7. orrialdean.

DIMA

Dimako San Pedro jaiak garagarriaren 2ra arte. Ikusi egitaraua 5. orrialdean.

ZEANURI

Undurragako jaiak. 08:00etan, kalejireia auzoan; 11:30ean, mezea. Ostean, barauskarria herriko txistulariek girotuta.

BAGILAK 30
ARANTZAZU

03:30ean, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

IGORRE

20:00etan, *Nun batu dira gure ahotsak?* jantza ikuskizuna Goiko Plazan.

GARAGARRILAK 1
DIMA

02:30ean eta 05:00etan, jaietatik Arratiako herrietara bueltetako autobusa, autobus geralekuan.

ZEANURI

Undurragako jaiak. 08:00etan, kalejireia auzoan; 13:00etan, poteoa; 14:00etan, auzo bazkaria; 17:30ean, erromeria Etxebarria aita- seme trikitaliakaz; igel jaurtiketea; 20:00etan, txixi-burduntzia.

GARAGARRILAK 2
ZEANURI

Undurragako jaiak. 11:30ean, Tortilla Txapelketea; 13:30ean, poteoa; 17:00etan, umeentzako puzgarri eta jolasak; 18:00etan, Undurragako 5. Bola Txapelketea; 20:00etan, zozketea; Jaien amaiera txokolategaz.

**Jantza ikuskizuna Lemoako**
Kotxepin Kultur Etxean

Bagilaren 17an, 20:00etan, Neri(h)ari jantza konpainiak *Nunavut* jantza ikuskizuna eskainiko dau Lemoako Kotxepin Kultur Etxean.

Neri(h)ariren proposamen eszeniko hibridoa da *Nunavut*, ipuin kontaketa abiapuntutzat hartuta, jantza garaikidea, soinu artea, antzerki fisikoa eta arte plastikoak batzean dituana. Nunavut Kanada iparraldeko lurralde bat da. Izenak "gure indarra" edo "gure lurra" esan gura dau inuiten hizkuntzan. *Nunavut* ikuskizuna, lurralde utopiko bat eregiteko saiakerea da, uniberso oniriko bat.

Myriam Perez Casabon da lan honen zuzendari artistikoa eta Olaia Valle, Nerea Gurrutxaga edo Leire Otamendi eta Idoia Hernandez edo Peru Galbete, interpreteak.



GORBEIALDE
LANDA GARAPENA

ARRATIA, UBIDE ETA ZEBERIOKO
GARAPENEAN LAGUNTZEN

KOMIKIA

Iman Olatu



IRAGARKI LABURRAK

DANERIK

GARAJEA ALOKATZEN DOT

Garajea alokatzen da Igorreko Elexalde kaleko 56 zenbakian. Eleiza aurrean. Telefonoa: 94 631 60 22.

LONJEA ALOKATZEN DOT

Igorreko Olabari auzoan dagoan lonja bat alokatzen dot kontratupean. Informazioa, 647 239 449 telefonoan.

BULEGOA ALOKATZEN DOT

Arrigorriagako erdigunean, horniduta eta lan egiteko prest dagoan bulegoa (45 m²) alokairuan. Kudeaketa, aholkularitza, aseguruak, eta abarrentzako aproposa. Prezioa: 450 euro. Telefonoa 665 709 651.

SALTZEAN DOT

Dimyos markako bizikleta eliptikoa eta animaliek alde ez egiteko hezi elektriko ikusezina, transmisorea eta lepokoa saltzean dodaz. Interesdunek deitu: 661 273 192 telefonora.

LANA

PSIKOLOGIA ZENTROA ESKUALDATZEN DA

Igorreko San Juan auzunean, baimen guztiakaz eta jardun betean. Interesdunek deitu 600 634 272

(Sagrario) telefonora.

TABERNARI BILA

Axular Herriko Tabernan lan egiteko tabernari euskaldun bat behar da. Interesdunek tabernan galdetu edo axularke@gmail.com helbidera idatzi.

GITARRA KLASEAK EMOTEN DODAZ

Hari's Rosk School. Gitarra klase personalizatuak emoten dodaz adin guztietarako. Igorreko Kiñu Gaztetxean. Interesdunek deitu: 664 303 528.

KLASEAK EMOTEN DODAZ

Piano klase partikularak emoten dodaz Areatzan (maila guztiak), umeentzat zein helduentzat. 629 461 077.

Zeozor saldu, erosi, alokatu, trukea egin, behar edo behargin bila bazagoz, bidali asko jota 25 berbako mezu bat begitu@begitu.eus helbidera. Mezuak doban dira.

Begitu-lagunen txokoa

Zenbaki honetako saridunak:

1 Lemoako Kotxepin Kultur Etxeak emondako bina sarrera Neri(h)ari jantza konpainiaren *Nunavut* jantza ikuskizunerako.

Garbiñe Uriarte (Dima)
Maite Belaustegi (Igorre)



2 Kristonak taldeak emondako materiala.

Joserra Ipiñazar (Areatza)
Aitziber Milikua (Areatza)



begitu

Zerturen argitalpenak jasoko dozuz, zozketetan sartuko zara. BEGITUK 21 urte eta ehundaka lagun.

94 673 90 13/649 979 115 | www.begitu.eus | begitu@begitu.eus

BIXER TABERNA
Beko kalea, 2 - Tel.: 94 631 73 65 - VILLARO

NAIARA Hartz Klinika
Lehendakari Agirre, 19
48140 Igorre
94 631 52 26

BIZARGINAK
«Ulea era klasiko eta modernoan ebagiten dogu. Bizarra egin eta buzkunduten dogu»
Tel. 94 607 78 33
Lehendakari Agirre 9, behea IGORRE

ZUZENBIDE
ASEGURUAK: AUTOAK ETXEBIZITZAK
AHOLKULARITZA: LAN ZUZENBIDEA ZERGAZ KONTABILITATEA
DENDAK ISTRIPUAK BIZITZA...
Tlf. 94 673 71 41 - 94 673 70 55 - 94 612 11 96 - Faxa 94 612 11 96
Sabino Arana 3. behea - Igorre (Bizkaia)

KIRRU ILEAPAINDEGIA
ROSANA eta ROBER
SABINO ARANA 38 IGORRE
Tlf. 94 631 92 00

begitu eus

Jose Luis Corbacho
pintura lanak
Sabino Arana, 3. 3a
Igorre 48140 Bizkaia
Tel.: 94-673-70-87
Tel.: 609-79-40-54

ZEKUTZE JANTZIA
Sabino Arana, 34
48140 IGORRE - Bizkaia
Tel.: 94 631 52 83
zekutzejantzia@hotmail.com

begitu eus



STIHL

PRESTATU ZURE LORATEGIA ESKAINTZARIK ONENAKAZ

<p>BATERIADUN MINI ZERRA GTA 26 <small>AKERI</small> LEHEN 139</p> <p>129€</p> 	<p>BATERIADUN SASI-GARBITZEKO MAKINEA FSA 57 <small>AKERI</small> LEHEN 169</p> <p>149€</p> 
<p>BARRIA HIDROGARBITZAILEA RE 100 PLUS CONTROL LEHEN 249</p> <p>219€</p> 	

OPARI LEZ
LITRO BATEKO CU 100 GARBIKARI UNIBERSALA ETA GARBIKETA-JOKOA

2023ko lagunen 30era arteko balioko eskaintza.

GARAJE FELIPE
www.garajefelipe.stihl-tienda.es

- 📍 Garbe, 2 - Igorre
- ☎ 946 736 339
- ✉ garajefelipe@euskalnet.net
- 📍 Montorra auzoa, Behea 1º - Amorebieta
- ☎ 946 309 039
- ✉ garajefelipe2@telefonica.net

begitu **20** urte

BAIETZ 30 LAGUN BARRI EGIN!

2023AN EGIN ZAITEZ BEGITU-LAGUN! BEGITU-LAGUN EGITEAK SARIA DAUKA!

Begitu aldizkariaren asmoa eten barik hobetzea da, beti be Arratia-Ubide-Zeberio inguruko euskerazko aldizkaria euki daigun. Baina horretarako baliabide ekonomikoak indartu behar doguz. Begitu bere buruaren jaube izan eta etorkizunari bermez eutsi ahal izateko. Horretarako **2023an egin zaitez Begitu-lagun!** kanpaina abiatu gura dau Begitu aldizkaria argitaratzen dauan Zertu Kultur Elkarteak, eta helburua argia da: Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekari euskalduna babestuko dozu?

Oindino Begitu-laguna ez bazara, eta Arratia-Ubide-Zeberioko hamabostekaria babestu gura badozu, bete egizu beheko formularioa eta bialdu honako helbidera:

Zertu Kultur Elkarte Herriko plaza 24. 48142 Artea.

Izen-abizenak: _____
 Helbidea: _____
 Telefonoa: _____ Helbide elektronikoa: _____
 Kontu korrontearen zenbakia: ES _____
 Aukeratu urteko kuotea: 35€ 55€ 75€

*Gainera Begituren produktu honeek helduko jatzuz etxera doban.

begitu.eus    

Edo e-mailez, bialdu datuok: begitu@begitu.eus helbidera.